



Tristeza eta lotsagarria

Quios-eko errefuxiatuen kanpalekuan izan diren bi oñatiarren testigantzak bildu ditugu. "Muturreko egoeran bizi dira; bizi-baldintzarik gabe"



Etsigarria, tristea, ahazteko modukoa... Bukatu berri den urteari buruz entzuten diren kalifikatiboak dira. Nola definituko zenuke zuk? Zein ondorio utzi ditu herrian? Ezer positiborik atera al daiteke?

Duda barik, inork ez genuen nahi, ezta irudikatu ere, horrelako urterik. Tristea oso, joan zaizkigun herritar guztiengatik, lanik gabe geratu direnengatik, egoerak gogor kolpatu dituen horiengatik... Errealitate asko ditugu herrian, horietako zenbait ikusten ez diren arren.

Zaila da testuinguru honetatik ezer onik ateratzea. Baina, bat aipatu beharra izango banu, esango nuke agerian geratu dela herritarrok elkarren beharra dugula, eta, egoera zailetan, argi dugula zeintzuk diren herri gisa heldu beharreko lehentasunak. Eta, heldu beharra badago, heltzen diegula. Horren adibide dira behar handiena dutenak laguntzeko ekinbideak, komunitate izaeraren indartzea, boluntariora, tokikotasuna, elkarzaintza... Zentzu horretan, pribilegiatuak gara oñatiarrok. Erakutsi dugu oso barneratua dugula elkartzunaren kontzeptua.

COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko hainbat neurri eta laguntza lerro abian jarri behar izan ditu udalak urtean zehar. Zenbat diru bideratu da guztira?

Era askotako ekimenak jarri behar izan ditugu martxan Covid-19aren eraginak leuntzeko ahaleginean. Azken finean, berria zen testuingurua. Ez genekien zer etor zitezkeen bihar; eta, are gutxiago, zer, etzi. Dena den, hori ez zen aitzakia. Ezin ginen gelditu geratu, eta unean uneko beharretara egokituriko neurriak hartu ditugu, diru-laguntzak sortuz (ostalariei, merkatariei eta zerbitzu sektoreko laguntzak, bestelako norba-



"Asko dira 2020an egindakoak. Alor guztietan gabilta gogor lanean"

Amaitu berri den urte berezi eta zailaren balantzea egin dugu **Izaro Elorza alkatearekin**. Esku artean dituzten egitasmoen berri ere eman digu.

nakoei...), zerbitzuak indartzuz (udako zaintza hezitzailea, Usakoko zerbitzua, egunerokoak...), musukoak banatuz... Orotara, esan daiteke 600.000 euro inguru bideratu direla pandemiaren ondorioei aurre egitera —zerbitzuak indartzera bideraturiko baliabideak gehitu behar zaizkio horri—.

Bide horretan, aipatu gura nuke geuri ez dagozkigun laguntza ugari sortu behar izan ditugula, Eusko Jaurlaritzari zegozkionak —hor daude ostalariendako laguntzak, merkatariei bideraturikoak...—, nagusiki. Baina ezin ginen

geldi geratu. Zaurgarrienak ezin zitezkeen zaurgarriago bilakatu. Eta, gaurtik aurrera ere, Eusko Jaurlaritzari laguntzak exijitzen jarraituko dugu, neurri bakoitzak laguntza bat ekarri behar bailuke harekin.

Hartutako neurrien artean, oso harrera ona izan dute diruz lagundutako erosketa bonoek. Eta horretarako garatu duzuen plataforma edo aplikazio informatikoa etorkizunera begira ere oso erabilgarria izan daitekeela adierazi duzue. Zertan?

Alde batetik, herriko saltokiek —txikienak barne— aurrera-

pauso bat ematea ekarri du aplikazioa martxan jartzeak. Erakusleho paregabea da. Bonoak martxan izan barik ere, gurean dauden saltokiak eta zerbitzuak ikus daitezke, eta, adibidez, opari bonoak egiten jarraitu. Bestalde, unean uneko kanpaina espezifikokoagoak egiteko aukera eskaintzen du plataformak, adinkakoa, adibidez. Tresna interesgarria da.

Txertoak iristen hasi dira, baina COVID-19aren eragina eta ondorioek luze joko omen dute oraindik. Dirulaguntza lerro berririk

izango al da 2021ean?

Izan daiteke. Esaterako, Gizarte zerbitzuen arloan, beharrak areagotu daitezkeela uste dugu. Aurreikuspen hori dago. Beraz, aurretik sortuak genituen zenbait laguntza indartu ditugu. Gainontzekoan, egoeraren arabera joan beharko dugu neurriak hartzen.

Zorionez, kiroldegia berri-tzeko lanei ez die askorik eragin pandemiak, eta agintaldi honetako proiektu nagusia amaitzear dago. Noiz erabili ahal izango ditugu instalazio berriak?

Zoritarrez, kirol ekintzak egiteko oztopoak jarri dizkigu pandemiak, eta, tarteka, gutxitu egin da kirol instalakuntzen beharra. Horren obra handia izanik, egunero jarraipena egin beharra izan dugu, gainean egon eta momentuan momentuko behar eta erabakiak hartu.

Kantxa berdean eta pilotalekuan egokitzapenak egiteko ere aprobeztatu dugu. Bada, bide onean doa obra. Aurretik esan izan dugun moduan, igerilekua zabalduko genuke lehenengo, urtarrila eta otsaila bitartean. Ostean letorke gainerako instalazioen irekiera, fase ezberdinetan.

Araotzeko eskola ostatu bihurtzeko proiektua eta Natur Eskola eraberritzea dira esku artean dituzuen beste bi proiektu potolo. Zertan dira?

Natur Eskolako obrak amaitzear ditugu —urtarrila eta otsaila bitarterako eginda egotea aurreikusten da—. Dena den, lanak amaitu ostean, tartetxo bat beharko da Natur Eskola hornitzeko eta programa hezitzailea bertara egokitzeko.

Bestalde, martxan dago Araozko ostatuaren bigarren fasea —martxoa inguruan amaitzea aurreikusten da—. Horren ostean jarriko lirarteke martxan hornitze fasea eta

PANDEMIA

Pandemiak agerian utzi du beste behin oñatiarrok oso barneratuta dugula elkartasunaren kontzeptua

Eusko Jaurlaritzari dagozkion laguntza ugari (ostalarienak, merkatarienak...) sortu behar izan ditugu

PROIEKTU NAGUSIAK

Urtarrila eta otsaila bitartean zabalduko dugu kiroldegiko igerilekua, eta ondoren gainerako instalazioak

Natur Eskola eraberritzeko lanak otsailean amaituko dira, eta Araotzen ostatua egokitzeko lanak martxo alderako amaitzea espero dugu

ostatuko zerbitzuaren lizitazioa. Bitartean, elkarlanean gabiltza auzotarrek.

Kostu aldetik txikiagoa bada ere, jende asko ari da eskatzen San Prudentzioko autobus geltokia egokitzea eta komunak ipintzea. Eta, azkenean, badirudi gaiari adarretatik heltzea erabaki duzuela. Zertan da?

Urte hasieran bilera bat izan genuen Arrasateko, Bergarako eta Elorregiko ordezkariekin. Proiektuaren eta aurrekontuaren zirriborro bat genituen esku artean, eta herrion esku geratu zen hura aztertu eta egokitzapenak egitea edo beste proposamenen bat garatzea.

Baina gaia geldi zegoenez, aurreproiektua lantzeko erabakia hartu genuen. Halaxe adierazi nien beste herrietako ordezkariari. Abenduan jaso dugu aipaturikoa, eta, moldaketaren bat egin behar badugu ere, badugu lehen oinarri bat. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere egin dugu berba, eta begi onez ikusi dute proiektua. Udalok proiektua elkarrekin gauzatuko bagenu, diputazioa batzeko aukera legoke.

‘Partaidetzazko Aurrekontuak 2019-2020’ prozesuan herritarrek aukeratu-tako hainbat proiektu ere gauzatu dituzue aurten: Olakuako kirol kantxa, komun bana Munazategin eta Olabarrietan, sokadun jolas gunea, zaborrontzi berriak... Zer falta da? Izango al da Partaidetzazko Aurrekontu prozesu berririk?

Dagoeneko eginda daude ia denak —2021eko hasieran amaituko dira falta direnak—. Azken finean, proiektu horietako bakoitzak lan handia dakar berarekin, aurrekontuak ez baitziren zehaztasunetan sartzen. Proiektu osoa definitu eta egokitu behar izan da zenbait kasutan —

Ugarkaldeko estalkia, esaterako— eta lanketa orokorrago bat egin beste batzuetan —bizikletentzako aparkaleku estaliek, adibidez—. Asko izan dira azken bi urteotan gauzaturiko proiektuak: zeharabideak argiztatzeko lanak, komun publiko berriak, Olakuako kirol kantxa, herrian zehar eserleku gehiago jaretzea...

Bestetik, 2020an prozesu berri bat abiaraztea zen urte hasierako asmoa, eta hasiak geunden lanketa egiten. Baina pandemiaren eraginez, parte-hartze prozesu egokirik bermatu ezin zitezkeela ikusita, bertan behera geratu zen. Dena den, hor dago aurrerago aurrekontu parte-hartzaileen prozesu berri bati ekiteko asmoa, aurretik egin-dakotik ikasita, zuzenduta, hobetuta edota moldatu beharrekoak moldatuta.

Berdintasun arloan ere hainbat lan egin dituzue: biolentzia matxistari aurre egiteko erakunde arteko protokoloak (Udala-Osaketza-Ertzaintza), Emakumeen Kontseilua, Jabetze Eskola, emakume migratzaileen inguruko diagnostikoa... Udalak arlo honetan duen konpromiso sendoaren erakusle.

Berdintasun arloan aurretik ere hasiak ginen urratsak egiten. Horiek sendotzea dago gogitu. Erakundeen arteko berdintasun protokoloari ofizialki eman diogu hasiera, Jabetze Eskola indartu dugu (urte osorako agenda antolatu dugu, epe motzeko eta ertaineko ikastaroekin, hitzaldiekin eta urte osoko ikastaro edo espazio “finkoekin”), lehen urratsak egiten hasi da Emakume Kontseilua (espero dugu 2021ean guztiz errotzea), egina dago Emakume Etxearen inguruko diagnostikoa (lagungarri da markoa eta hurrengo urratsak definitzeko), Berdintasun

Planarekin gabiltza... Finean, erdigunean jarria dugu Berdintasunaren alorra. Eta hor ere gogor gabiltza lanean.

Ulma Taldearekin lankidetza hitzarmena adostu duzue biribilgune bat egiteko Ulma Eraikuntza lantegiko sarreran. Garrantzi-tsua, ezta?

Hala da. Proiektu konplexua da, baina horren garapenari forma ematea lortu dugu dagoeneko. Ulmak Munazategiko industrialdea garatzeko asmoa duenez, ezinbestekoa da gune horretarako sarrera-irteera egokitzea. Eta obra horrekin batera, Garibai auzoko baserrietarako sarbide segurua egokituko du udalak. Kontuan hartu beharrekoa da gune horretako trafikoak eta abiadurak bertako bizilagunen duten eragina. Gune seguru bat sortu beharra dugu. Horretan gabiltza, Ulmarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Ezustekorik ezean 2021ean egingo da biribilgunea. Auzotarrekin ere bagabiltza hitz egiten.

Merkataritza biziberritzeko plana eta Oñatiko Turismo plana berritzeko prozesuak ere abian jarri dituzue. Zertan dira?

Lehenengoari dagokionez, eginak daude diagnostikoa eta ekintza plana. Aurten hasiko gara ekintza planean jasotako egitasmoak gauzatzeko. 30.000 euroko partida dugu aurreikusia horretarako.

Turismoko plan estrategikoa ere bide onean doa. 2020an amaitu genuen diagnostikoa, eta, orain, ekintza planarekin gabiltza. Bertan azaldutakoak gauzatzeko hasia letorke ostean.

Gainerakoan, 2020an egingo dakoetatik zer azpimarratuko zenuke?

Asko dira 2020an egingo dakoak. Alor guztietan ga-

Bi urteren buruan ia bi milioi euro gutxiago jasoko ditu udalak Foru Funtsetik

COVIDak eragindako krisiaren ondorioz, 2020an aurreikusitakoa baino 1,3 milioi gutxiago jaso du udalak Foru Funtsetik, eta 2021eko aurreikuspenen arabera, ia 600 mila euro gutxiago izango dira. Hala ere, udalaren oreka finantzarioa bermatuta dago, Izaro Elorza alkateak azaldu digunez. "Gipuzkoako Foru Aldunditik dagokiguna baino diru gutxiago jasoko dugu aurten. Hori oso kontuan hartu beharra izan dugu aurrekontuak lantzean. Baina ez dugu zorpetze gehiagorik aurreikusten. Hainbat murrizketa egin ditugu gastuetan eta zenbait inbertsioetan. Dena den, gai izango gara 1,2 milioiko inbertsioak egiteko, baita ohiko zerbitzuak mantentzeko ere".

Hasi berri dugun urtea ere ezegonkorra izango dela aurreikusten da, eta, beraz, "zentsuz eta arduraz" jokatu beharra dagoela dio Elorzak. "Horrexegatik, ondo aztertu ditugu aurrekontuetan sartu ditugun proiektuak. Besteren artean, aurrekontuak lantzean, aintzat hartu ditugu behar handiena dutenak —horiendako ez da inolako murrizketarik. Hasieratik izan dugu hori argi—, baita ezinbestean exekutatu beharreko proiektuak".

"Geuk, EH Bilduk, landutako proposamenari EAJk egindako emendakinak ere aztertu ditugu. Baina ez ditugu onartu", azaldu du alkateak. "Izan ere, horietako lau jasota zeuden aurrekontuan; beste bost martxan ditugun proiektuak ziren, aurrekontuetan gehikuntzarik gabe gara daitezkeenak; eta gainerako zazpi proposamenak egikaritzeko, beharrezkoa zen udal gobernuaren proposamenean 215.000 euroko partida sorta aldatzea. Alegia, geurea bazterrean utzi eta euren sartzeko. Ez digute horretarako pisuzko argumenturik eskaini. Horren aurrean, geure proposamenak lehenetsi ditugu, hala nola, Lezesarri auzorako eta Azkoagainerako irisgarritasun lanak, ikastetxe inguruak bizikleta aparkalekuak edo herriko ondare kultural eta historikoa bultzatzeko etnografia proiektua. Bestetik, 2020ko urteko likidazioa eta kiroldegikoa egitean ikusiko dugu zein den erabilgarri dugun gerakina. Horren arabera erabakiko dugu proiektu berriren bat martxan jartzen den ala ez. Hor ere, nola ez, lehenetsunak finkatuko ditugu, inor atzean ez uzteko helburuz".

ELORREGI

Elorregiko autobus geltokia egokitzeko aurreproiektua egin dugu, eta Aldundiak begi onez ikusi du.

HIRI-ANTOLAMENDU PLAN OROKORRA

HAIPOaren lehenengo fasean argi geratu da oñatiarrok ez dugula herrigunea handitzerik nahi, eta ingurunean ahalik eta inpaktu txikiena eragin nahi dugula

biltza gogor lanean, eta zaila, denak aipatzea. Dena den, ez luzatze aldera, hemen daude horietako zenbait: Olakuako irisgarritasun lanak, herrigune historikoa biziberritzeko PERCH planaren oinarriak, Berezaoko egokitzapena, oinezkoen segurtasunerako proiektua, Azkoagainerako aldagela berriak, argiteria berritzea, konpost gunea, ur-txorroten egokitzapena, kale izendegiendako plakak, webgune berria, partaidetzako arautegia, gardentasunerantzko urratsak, energia berriztagarriaren eta gisako ereduaren aldeko lanketa...

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berrikusi eta eguneratzeko prozesua ere abian da. Irailean ipini zenuten jende agirian Sabai Arkitektoak enpresak idatzitako dokumentuaren aurrerakina. Zer azpimarratuko zenuke?

Aurrerakinari egindako irado-

kizunak jaso ditu Sabai Arkitektoak enpresak, eta lanketa hori egin ostean aurkeztuko digu iradokizunen txosten teknikoa. Horiek guztiak aztertu eta udalak irizpideak zein helburuak onartzean, tarte utziko da txostenaren erredakziorako. Hasierako onespene dokumentua izango da hori.

Aurrerapen dokumentuaren garapenean bezalaxe, herritarren parte hartzea beharrezko izango da fase honetan, eta alegazioak jasotzeko epea ere zabalduko da. Hurrengo faseetan ikusiko dugu zein den joera, desadostasun handiagoak egon baitaitezke xehetasunez jardutean. Baina lehenengo fasean argi geratu da oñatiarrok ez dugula herrigunea handitzerik nahi. Dauden espazioak eraberritzea eta aprobetxatzea nahi dugula, eta, gure ingurunea, bere horretan mantentzea, ahalik eta inpaktu txikiena sortuz. ■



ATEAK ZAPALIK

*Eskola bizia
eta aktiboa*



*Publikoa eta
kalitatezkoa*

- **Txiki Txoko:** oinati.oinati@haureskolak.eus / 943 71 64 05

URTARRILAK 13

- **Zuazolan:** 17:00etan SARRERAN ikasleek bisita gidatua izango dute. Talde txikitan banatuko dira bertaratua.
18:00etan ARETOAN gurasoendako azalpenak.

URTARRILAK 16

- **Errekalden:**

BISITA GIDATUAK

ALDEZ AURRETIKO HITZORDUA: 11:00 - 11:30 - 12:00 - 12:30 - 15:00 - 15:30 - 16:00 16:30 - 17:00 - 17:30 - 18:00 - 18:30 - 19:00 - 19:30

Urtarrilak 18tik 28ra 17:00 - 17:30 - 18:00 - 18:30

KONTAKTUA: zuzendaritza@urgainerrekalde.eus / 943 89 91 34

Web-orrian txertatuta dagoen esteka erabili hitzordua eskatzeko. www.errekaldelhi.hezkuntza.net

Etorri gure egunerokotasuna ezagutzera. Merezi du!!

www.urgain.eus



2021eko UDAL AURREKONTUAK

16,6 milioi

► 2021eko aurrekontuak onartu ditu udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin ► Inbertsioetara 1,2 milioi bideratuko dira

16.602.383 euroko aurrekontua izango du udalak hasi berri dugun urtean, 2020koa baino %3,5 txikiagoa (-607.966 euro). Abenduaren 17ko osoko bilkuran onartu ziren 2021eko aurrekontuak EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin.

Diru sarrerak eta gastuak parean dituen aurrekontua da. Diru sarrerei dagokienez, transferentzia arruntan kapitulua ia %5 jaitsiko da, batez ere Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren jaitsieragatik, iaz baino 595.000 euro gutxiago iritsiko baitira diputaziotik. Aurrekontua orekatzeko, 450 mila euroko maileru berria hartzeko aukera aurreikusita badago ere, 2020ko ekitaldiko likidazioak baldintza dezake, maileru berririk behar ez izateraino.

Udal kontu hartzaileak egindako balorazioan, aurrezki arrunt garbia positiboa izatea azpimarratu zuen, krisi garaian ez baita erraza izaten. Departamentu guztiek gastu-euste lan handia egin dutelako lortu dela esan zuen, bai 2008ko krisi go-

gorraren ondoren, eta baita orain ere, pandemiak jo duenean. Udalaren zorpetze maila %5,23koa izango da, aurtun baino puntu eta erdi baxuagoa.

EH BILDUREN BALORAZIOA

Udal gobernu taldearen ize-
nean Izaro Elorza alkateak azaldu zituen 2021eko udal aurrekontuen ezaugarri nagusiak. COVID-19ak guztiz baldintzatutako aurrekontuak direla azpimarratu zuen. "Diru sarreretan azpimarratzekoa da 595 mila euro gutxiago jasoko ditugula Udalen Finantzaketarako Foru Funtsetik, eta, era berean, gastuetan ez ohiko partidak sartu ditugu COVIDak sortutako egoerari aurre egiteko".

Irizpide orokor gisa, behar handiena duten sektoreetara bideratutako gastua mantendu egin dela azaldu zuen alkateak, "eta herriko eragileei egiten zaizkien transferentziak ere mantendu egin dira, herriari egiten dioten ekarpena ezinbestekoa ikusten dugulako".

Gastuen atalari dago-kionez, Barne Antolaketa (-204m€) eta Lurralde Antolaketa (-352m€) departamentuan eman da jaitsierarik handiena, inbertsioen apal-tzeagatik, batez ere. "Hala ere, 2021eko aurrekontuak 1,2 milioi euroko inbertsioak gauzatzea ahalbideratuko du" gaineratu zuen Elorzak.

Alkateak ez du uste zorpetu beharrik egongo denik 2021eko aurrekontuei aurre egiteko, eta udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatuta dagoela adierazi zuen.

Ondoren, 2021ean gauzatu diren proiektu eta inbertsio nagusien errebasoa egin zuen alkateak, batzordez batzorde (ikusi 8-9 orriak).

EAJ-REN ABSTENTZIOA

EAJren udal taldeak hamasei proposamen aurkeztu zituen "herriko zenbait eragileren eskaerak, proposamenak eta premiak jaso ondoren, herri-tarrei hobekien erantzungo dieten aurrekontuak osatze aldera", adierazi zuen Ainhoa

Galdos bozeramaleak.

Hauek dira jeltzaleek aurkeztutako proposamenak:

- Olakua-Olapoto auzoko irisgarritasun proiektuaren faseak aurreratzeko **145.000 €**
- Azkoagainerako irisgarritasun lanetarako **20.000 €**
- Arantzazuko komunak konpontzeko **7.500 €**
- Landa auzoetako argiteria hobetzeko **20.000 €**, Murgia eta Berezaio auzoei lehentasuna emanez
- San Martingo hariztia egokitzeko, irisgarritasunerako oztupoak kendu eta paseatzeko eta/edo korrika egiteko lurrezko bide bat egiteko **15.000 €**
- Urrutxuko zabortegi zaharra iragazgaitzeko 2.faseko proiektua idazteko **50.000 €**
- Oñatiko ikastetxeetako liburutegiak hornitzen laguntzeko diru-lerroa **10.000€**
- Kultur-etxean azterketa garaian gelak zabaldu eta orain arteko zerbitzuari eustear gain, Gabonetan eta udan liburutegia irekitzeko **30.000€**
- Urteko Kultura Sariak sortzeko **15.000€**



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



» Behar handiena duten sektoreetara bideratutako gastua eta herriko eragileei zuzendutako laguntzak mantendu egiten dira

IZARO ELORZA
EH Bildu

- Musika eskolaren proiektua lantzeko **15.000€**
 - Oñatiko udalerrria "Euskadi Lagunkoia" mugimenduak sustatzen duen programara atxiki eta berau garatzen hasteko **6.000 €**
 - Herri-mailan, adinka, kontsumoen eta adikzioen diagnostikoa eta Nerabeen Adikzioak Prebenitzeko Plana egiteko **20.000 €**
 - Bizikidetzaren Ordenantza parte-hartze prozesu baten bidez osatzeko **5.000 €**
 - Baserriko produktuen salmenta digitala sustatzeko proiektua lantzeko, eta soberakinak erosi eta banatzeko. **50.000 €**
 - Merkataritza eta ostalaritzaren digitalizatorako formakuntza programarako **15.000 €**
 - Tokiko merkataritzaren balioa nabarmentzeko kanpainetarako eta ekintza plana garatzen hasteko **15.000 €**.
- Galdosek azaldu zuenez, aurkeztutako proposamene-tatik lau onartu ditu gobernu taldeak (Urrutxuko zaborte-giarena, musika eskolarena, adikzioena eta landa au-zoetako argiteriarena), eta beste bost begi onez ikusi ditu (baserriko produktuena, mer-kataritzaren digitalizatorako formakuntza, tokiko merkata-



» Herritarren beharrei hobekien erantzungo dieten aurrekontuak osatzeko hainbat proposamen aurkeztu ditugu

AINHOA GALDOS
EAJ

- ritzaren aldeko kontzientzia-zio kanpainak, Azkoagaine-rako irisgarritasun lanak, eta bizikidetzaren ordenantza-rena). "2020ko aurrekontuaren li-kidazioa egiten denean ger-rakina handia egongo dela aurreikusten denez, gure proposamenak aintzat har-tzea eskatzen diogu gobernu taldeari" gaineratu zuen.
- Jeltzaleen bozeramaleak adierazi zuen estrategikoak eta beharrezkoak iruditzen zaizkiela Olakua-Olapotoko irisgarritasun lanak, eta ki-rol azpiegiturei dagokienez, Azkoagaineko proiektua osotasunean aztertzeke eta Urrutxun atletismo pista bat egokitzeko proiektua azter-tzeko garaia dela.
- 2020ko aurrekontuaren bet-etze maila "nahiko baxua" izan dela esan zuen Galdo-sek; "agindutako 11,5 mi-lioiko inbertsioetatik 4,2 milioi bakarrik (%38) exekutatu dira (azaroko datuak)".
- Bestalde, udal kontu har-tzaileak egindako txostenean oinarrituz, Galdosek adierazi zuen udal aurrekontuek ez dutela egonkortasun helburua betetzen, eta agintaldi oso-rako planifikazio baten beha-rra aldarrikatu zuen.
- Aurrekontuen bozketan abstentziora jo zuen EAJk. ■

► AURREKONTUAK DEPARTAMENTUKA

KOMUNIKAZIOA ETA PARTE HARTZEA	512.020
GIZARTE ZERBITZUAK	1.698.884
KIROLA	1.090.425
KULTURA	1.225.401
BARNE ANTOLAKETA	6.719.831
SOZIOEKONOMIA	558.033
LURRALDE ANTOLAKETA	3.692.296
AISIALDI HEZITZAILEA	1.105.489

► DIRU SARRERAK KAPITULUKA

I. ZUZENEKO ZERGAK (kontribuzioa, ibilgailuak, gainbalioa, jarduera ekonomikoak...)	4.126.234
II. ZEHARKAKO ZERGAK (obra baimenak...)	215.000
III. TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK (zaborra, kiroldegia, etxek etxeko laguntza...)	2.343.434
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Foru fondoa, gizarte zerbitzuetako laguntzak...)	8.342.495
V. ONDARE-SARRERAK (Oñargi, Ur Jauziak)	933.241
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Hirigintza kuotak (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...)	163.976
VIII. FINANTZA AKTIBOAK (kapital itzulketak, interesak...)	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (mailegua)	450.000

► GASTUAK KAPITULUKA

I. PERTSONAL GASTUAK	5.976.871
II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK (konponketak, argindarra, garbiketara, bulego materiala, etxek etxeko laguntza zerbitzua, lorezantza...)	5.673.490
III. FINANTZA GASTUAK (maileguen interesak)	40.429
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Aloña Mendi, musika eskola, kultur taldeak, hirugarren mundua...)	3.534.008
V. KREDITU GLOBALA	0
VI. INBERTSIO ERREALAK	1.223.891
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako...)	117.851
VIII. FINANTZA AKTIBOAK	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (amortizazioa)	7.840

2021eko udal aurrekontuak BATZORDEKA

2021eko udal aurrekontuetan batzorde ezberdinetan jaso diren diru-atal nagusiak azaltzen dira orriotan.

ONGIZATEA

Pertsonen eskubide, bizi-baldintza eta ongizatearen onurarako izango diren hainbat proposamen jasotzen dira 2021eko aurrekontuetan. Orain arteko zerbitzuak mantendu eta, besteak beste, honakoak jasotzen dira:

- **Gizarte larrialdi**etarako diru laguntza %21 igoko da. Guztira: 200 mila euro.
- **Menpekotasunen** prebentzio ekintzetarako aurrekontua mantendu egingo da: 20m€.
- **Jubilatu**en etxeko hobekuntzetarako: 15m€.
- **Saltoka** elkarteari garraiorako diru-laguntza emango zaio: 18m€.

BERDINTASUNA

Berdintasuna ardatz estrategiko izanik, indartu beharra ikusten da. Urteroko planteamenduez gain, lan-ildo berriak jorratuko dira, hala nola:

- **Jabetze Eskola** 38m€.
- **Berdintasun Plan**ean jasotako ekintzak garatzen jarraituko du udalak, hala nola: *Hezkidetz*a programa, *Xirrika* zerbitzua, jaien inguruko



- lanketa, etab. 40m€.
- **Selma Huxley** bekaren hedapena eta deialdi berria: 17,4m€.
- **Berdintasun kontseilua** 20m€.
- Azterlan eta lan teknikoak 38m€. Hala nola:
 - **Berdintasun plan**aren eguneratzearen amaiera.
 - Emakume **etorkin**en inguruko lanketa.
 - **LGTBIQ+** diagnostikoa.

KULTURA

- Kulturan, COVID19ak eraginda, sormena, artea edo ikus-entzunezkoekin zerikusia duten artista, langile edo gremioak oro har lehenestea erabaki da.
- Antzerki eta musika

GARIBAI AUZORAKO LOTUNEA

▲
Ulma Taldearekin lankidetzan (Ulma Eraikuntza lantegiko sarreran errotonda bat eraikiko du kooperatiba taldeak), Garibai auzorako sarrera-irteera eogkituko du udalak, goiko irudian adierazten den moduan.

programazioak: 80m€.

- Arte diziplina ezberdinetan euskarazko sormen lanak sustatzea helburu duen 'Geuretik Sortuak' proiektuan parte hartuko du udalak: 15m€.
- **Musika** eskolaren proiektua idazteko: 15m€.
- **Etnografia** arloko ondarea berreskuratu eta ezagutzera emateko: 15m€.
- **Kultur talde**ei zuzendutako dirulaguntzak: 80m€.

HEZKUNTZA

Proiektu hezitzaileak gauzatzeko herriko ikastetxeei zuzendutako dirulaguntza lerroa mantendu egingo da: 87m€, eta **inbertsio**etara, zuzendutako diru-lerroa %14



Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amara igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

igoko da, 78€ guztira, besteak beste, bizikletentzako estalitako aparkalekuak egokitzeko ikastetxeen inguruan.

EUSKARA

Euskararen presentzia ahalik eta txoko eta esparru gehienetan bermatzeko helburuarekin, programa ezberdinak sustatu eta babestuko dira:

- **Auzoko eta Berbalaguna** programak: 20m€.
- **Euskalgintza** ekimenetarako eta **euskara ikasteko** laguntzak: 21,5m€.
- **Ostalaritza eta zaintza** arloko langileak euskalduntzen: 6m€.
- Noka berreskuratzea helburu duen **Ingo xonau!** proiektua: 15m€.

HAURRAK ETA GAZTERIA

- 15m€-ko igoera izango du **gazteen emantzipaziora** bideraturiko partidak (65,3m€), eskatzaileen adin muga zabaldua (18-35 urte).
- 15m€-ko partida sortu da **etxe hutsen** diagnostikorako.
- **Gazteen laneratzera** bideraturiko partida berri bat sortu da: 15m€

PARTAIDETZA

Partaidetzaren kultura eta izaera komunitarioa indartzen duen gobernantza eredurantz jarraitzeko asmoa du udalak aurrerantzean ere:

- **Ekintza komunitarioaren** lanketan sakonduko dugu, 2020ko lana jarraituta, eta politika publikoen koprodukzioaren baitako prozesuak bideratuko dira: 45m€.



- **Gardentasunerako eta Parte-hartzerako** ordenantza gizarateratuko da: 5m€.
- **Udal-gardentasunerako** aurrerapauso berriak emango dira: 15m€.
- **Eltzia** egitasmoa sostengatzen jarraituko du udalak, bai eraikinari dagokionean, bai eta eragileei eta Eltziake barne dinamikari dagokienean ere: 58m€.
- **Garapen-bidean** dauden herrialdeekiko kanpo lankidetzak mantenduko da: 130m€.

SOZIOEKONOMIA

- **Merkataritza** Biziberritzeko Planeko **ekintza plana** amaitu eta bertan adostutako lan ildoan lanketari hasiera emango zaio (30m€).
- **Turismo** arloko Plan Estrategikoarekin jarraituz 15m€ partida bereizi da inbertsio berrietarako.
- Merkataritza eta ostalaritza laguntzeko martxan ipini den **bonoen plataforma digitalarentzat** ere dotazio berri bat egingo da, sektoreari

AZKOAGAIN INGURUKO IRISGARRITASUNA

Goiko irudiak erakusten duen moduan, Azkoagaineko eta Lezesarri auzorako oinezkoen bideak hobetzeko lanak egingo ditra aurtan.

laguntza berri bat emateko. 30.000€.

AUZOAK, LANDA GARAPENA ETA INGURUMENA


- **Agenda 2030** Garapen Iraunkorreko helburuetara iristeko 30m€ bideratuko dira eta **'Debagoiena 2030'** proiekturako 20m€.
- **Urrutxuko** zaborteziaren zigitatzearen 2.faseko proiektua idatziko da: 50m€.
- Energia jasangarritasunerako inbertsioen artean, **Energia Iraunkorren Ekintza Plana** idatziko da (35m€).

KIROLAK

- **Kiroldegiko** eraberritzearekin amaituko da eta igerileku eta instalazio berrien irekiera 2021 urtean gauzatuko da.
- **Azkoagain** dagokionez, irisgarritasun proiektua eta **Lezesarri** auzoko sarrerak hobetzeko 165m€ aurreikusi dira

HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK


- **Herri gune historikoa** eraberritzeko plan berezia (KHEPB) martxan jarriko da: 20m€.
- **Hiri Antolamendurako Plan Orokorren** (HAPO) ondorengo fasea: 50m€.
- **Garibaiko** auzoko sarrera-irteera eta Munazategiko biribilgunea: 91m€.
- Haurren parkeen mantenua eta San Martin auzuneko haurren jolas parkea berritzea: 45m€.



COINBROKER
ONATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP
OINATI@COINBROKER.EUS





dugu ilusio handiegirik egin nahi, baina gertuago dagoela pentsatu nahi dugu. Noiz arte eduki behar dute ba!"

MADRILDIK KANTABRIARA

Angel Telleriari dagokionez, Estremerako espetxetik (Madril) El Duesokora (Kantabria) aldatu zuten abenduaren 18an. "Hurbilago egoteaz gain, El Duesoko espetxea irekiagoa da, berdea ikusten da, itsasoa entzuten da... Ez da lau orma artean egotea. Baina hori baino inportanteagoa da, 2. gradura pasa dutela, eta aukera gehiago izango dituela. Gainera, sei edo zazpi euskal preso elkartuko dira bertan, eta aurrera-pauso bat da, jakina" adierazi digu bere arabek.

Oñatin jaioa, mutikotan Bilbora joan zen familiarekin, baina beti mantendu zuen harremana sorterriarekin, iparraldera alde egin behar izan zuen arte. Ondoren, Mexikon eman zituen ia 30 urte eta 2017k otsailean atxilotu zuten bertan eta Espainiara estraditatu. 2018an epaitu zuten eta 30 urteko zigorra betetzen ari da. Urriaren 64 urte bete zituen. ■

Etxetik hurrago

Joseba Arregi Martuteneko espetxean dago urriaren 29az geroztik, eta Angel Telleria Estremeratik El Duesora aldatu dute

Asko dira, oraindik, bakartuta, lehen graduan eta etxetik oso urruti dauden euskal presoak, baina, badirudi, Espainiako espetxe agintaritzak urte luzez aplikatu izan dizkien salbuespenezko neurriak arinduz doazela, poliki poliki. Azken hilabeteotan hainbat preso hurbildu dituzte Euskal Herriko edo inguruetakoz kartzelatarara, Joseba Arregi eta Angel Telleriaren kasuetan bezala.

Joseba Arregi Martuteneko espetxean dago urriaren 29az geroztik. "Euskal Herria zapaltzea eta euskal girotxoa aurkitzea oso inportantea izan da psikologikoki. Indar handia eman dio", adierazi digute senideek. Esan beharrik ere ez dago, bestalde,

familiakoentzat ere aldaketa izugarria dela: kilometro gutxiago, gastu gutxiago, arrisku gutxiago errepidean... "Guretzako alde handia da, eta preso dagoenarentzat ere bai, kezka eta urduritasun handia izaten baitute, senideak etxera onik itzuli arte. Dis-

pertsioa oso oso gogorra da".

Martxoan 75 urte beteko ditu Josebak, eta martxoan bertan 29 urte beteko ditu preso. Beraz, hurrengo urratsa, hurrengo mugimendua, etxerakoa izatea espero dute senideek. "Oraindik ez dauka irteera datarik, eta ez

Urtarrilaren 9an Oñatin egingo den manifestazioan parte hartzera deitu dute SAREk eta udal gobernauk

SAREk antolatuta, euskal presoaren eskubideen alde Bilbon egin izan den mobilizazio erraldoia herriz herri egitea erabaki dute aurten, pandemia egoera dela eta. Oñatin ere egingo da manifestazioa 'Etxerako, elkarbizitzarako, bakerako bidea gara' lelopean, eta bertan parte hartzeko deia luzatu diete herritar guztiei Sare herritarrak eta udalak. Elkarbizitzaren eta konponbidearen norabidean, egun indarrean jarraitzen duen eta horrenbeste sufrikario eragiten duen salbuespenezko espetxe-politikaren amaiera aldarrikatuko da manifestazioan, konponbidearen eta elkarbizitzaren norabidean pausoak ematen jarraitu ahal izateko. Eltzian hasiko da manifestazioa 17:30etan, eta Foruen plazan amaituko, adierazpen bat irakurrita.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



www.casaruralarregi.es

Garagaltza, 21 - 20560 Oñati - Gipuzkoa
T. 943 783657 / 646 023570
info@casaruralarregi.es



CAROL MAESTRO ETA MIREIA MARKULETA / Boluntarioak Quios-eko errefuxiatuen kanpalekuan

"Kanpalekua kartzela bihurtzen da errefuxiatuentzat; horma barikoa, baina kartzela"

Azken hilabete hauetan fokua Kanariar uharteetara desbideratu bada ere, Greziako irletan milaka errefuxiatuk bizi duten errealitatea lehen bezain gordina eta krudela izaten jarraitzen du. Bertan izan diren Carol Maestro, erizaina, eta Mireia Markuleta, medikuaren testigantzak bildu ditugu

Beraien udako oporraldiko egun batzuk baliatuz, Quios-eko (Grezia) *Vial* izeneko kanpalekuan S.M.H. (Itsas Salbamendu Humanitarioa) Zarauzko GKEak duen klinikan izan ziren lanean irailean hamabost egunez. Mireiarentzat, 26 urte, aurreneko esperientzia izan da, errefuxiatu kanpaleku batean. "Beti eduki izan dut horrelako proiektuetan parte hartzeko gogoia, eta, hala, Txagorritxuko larrialdietako eus-kara taldeak antolatutako hitzaldi batean ezagutu nuen SMH taldeak Quios-en egiten duen lana, eta berehala animatu nintzen. Medikua naiz, eta nire aletxoa jar nezakeela pentsatu nuen. Uxue, Txagorritxuko lankide bat eta biok joan ginen. Bera egona zen Lesbosen, baina Quiosen ez".

Carol, 31 urte, erizaina da, eta hirugarren urtez jarraian joan da *Vial*-eko kanpalekura. "Nik uste dut gure hemengo bizimoduak eragin zuzena daukela beste pertsona batzuen bizimodue-

tan, eta, hein batean, pertsona horiek duten ihes egiteko arrazoietan. Beraz, krisi migratorioen inguruan sortu diren laguntza sareetan parte hartzeko gogoia neukan. Hala, 2018an Aita Mari erreskate ontziaren lanaren berri izan nuenean, Interneten pittin bat arakatu eta jakin nuen S.M.H. Zarauzko gobernuz kanpoko erakundeak Quiosen osasun proiektu bat zeukala, eta halaxe animatu nintzen. Harrezkero urtero joan naiz bertara, 15 eguneko lanalditan".

Egeo itsasoan, Turkiatik 15 kilometrora dagoen uhartea da Quios, eta bertara iristen dira itsasoz, Europa amets duten milaka errefuxiatu. Zoritzarrez, baina, amets hori amesgaizto bihurtzen da askorentzat, hilabeteak eta urteak igaro behar izaten dituztelako bertan, oso oso baldintza latzetan, beraien asilo eskaerak tramitatu arte. "Azkenean, kartzela bilakatzen da errefuxiatuentzat; hormarik gabekoa, baina

kartzela", bat datoz biak ala biak.

Greziako militarrek kontrolatzen dute *Vial*-eko kanpalekua, eta hiriburutik 10 kilometrora dago, eremu soil eta oso lehor batean; ia ez dago landaretzarik. Pabilioi bat dago kanpalekuaren erdian (bertan daude gobernua- ren eta erakunde ezberdinen bulegoak) eta inguruan bizi dira errefuxiatuak, batzuk barrakoietan, eta gehienak kanpin dandatan edo egur nahiz plastikoz egindako txaboletan. Ez dute argindarrik, eta ur edangarria ere ozta-ozta; komun gutxi daude, kirats handia egoten da, eta ez da batere leku segurua. "1.000 pertsonari aterpe emateko pentsatuta zegoen kanpalekua, baina 5.000tik gora daude, bizimodu duin bat bermatzeko baldintzarik gabe" dio Mireiak.

KONTSULTA KANPALEKUAN

Egunean bi aldiz banatzen zaie janaria, baina oso kaotikoa izaten da banaketa. "Denbora pila bat egon behar izaten dute zain, zutik, inolako orden barik, eta eguneroko tortura txiki bat izaten da errefuxiatuentzat" dio Carolek. "Gainera, janaria oso txarra egoten da, gehientsuenek

"Oso muturreko egoera batetik datoz eta oso muturreko beste egoera batean bizi dira, gutxienez baldintzarik gabe eta duintasuna guztiz galdua. Ahaztuta dagoen jendea da"

» MIREIA MARKULETA

esaten dutenez".

S.M.H.-k Vial-en duen klinikan (nolabait esatearren) egin dute lan Carolek eta Mireiak. Lehen aipatu dugun pabilioi nagusiaren barruan dauden kontainer edo barrakoietan hiru ohatila daude, eta bertan artatzen dute jendea, osasun baldintza prekarioetan, batez ere aurten, COVID-19aren arriskua kontuan hartuta. Goizez Greziako gobernuak ipinitako medikua eta erizain talde bat egoten dira, eta arratsaldean S.M.H.-koak, 16:00etatik gaueko 22:00ak arte, egunero, aste eta jai. "Jende masa handia biltzen da egunero kontsultara sartu nahian, eta oso kaotikoa izaten da. *Triage* moduko bat egiten dugu, zelabait, txilioka, itzultzailearen laguntzarekin, behar handiena dutenak detektatzeko, eta hamarnako taldetan sartzeko ditugu barrura. Niretako hori izaten da kanpalekuko lanik gogorrena" dio Carolek.

Artatu behar izaten dituzten patologiei dagokienez, denetarik izaten da: sukarrak, infekzioak, traumatismoak, haurdunaldiko arazoak, gastroenteritisak... Estresa, antsietatea eta izuak eragindako krisi edo atakeak ere artatu behar izaten ditugu. Baita gorputz barruko metrailak eragindako minak, eta suizidio ahaleginak ere bai, tarteka.

Kanpalekuko kontsultaz gain, gabaz sortzen diren larrialdiak ere atenditu behar izaten dituzte S.M.H.-ko mediku eta erizainek, eta errefuxiatuen lehorreratzeak daudenean, gabaz edo goizeko lehen orduetan izaten dira, lehen errekonozimendua egitera joaten dira, larrialdiren bat baldin badago ospitalera bideratzeko, eta kasu zaurgarriak detektatzeko (bakarrik dauden haurrak, gaitz kronikoak dituztenak...).

"Kostazainek atzemandako ontziak direnean, Quios-eko portura eramaten ditu polizia, eta bertara joaten gara gu" azaldu digu Carolek; "oso inpaktantea izaten da; errefuxiatuak hotzez eta beldurrez dardarka izkin batean, eta handik metro gutxira Quioseko terrazatako taberna



Goian, Vial-eko kanpalekuko errefuxiatu askoren bizilekuak. Ezkerrean, kanpalekuaren erdian dagoen pabilioi nagusia. Behean, S.M.H.ko boluntarioak errefuxiatu artatzen



eta jatetxeak jendez gainezka. Gainera, polizia ematen dien tratua oso bortitza izaten da, bultzaka eta inolako errespeturik gabe. Beraien eskubideen berri ere ez diete ematen. Lehen artatzea egin ostean, furgonetan sartu eta kanpalekura eramaten dituzte. Beste batzuetan, polizia atzeman gabe iristen dira ontziak Quios-eko edozein hondartzara, eta orduan herritarrek deitzen diote poliziarik".

Aurten ez zaie parean egokitu errefuxiatuen *landing* edo

lehorreratzerik. "COVIDa hasi zenetik, ontziak atzeman ahala Turkiara bueltatu omen dituzte, zuzenean, berotan, eta oso modu bortitzean gainera; motorra kendu, sokarekin tiraka eramaten Turkiako ur eremuraino, eta bertan utzita noraezean" dio Carolek.

ETSIPEN SENTIMENDUA

S.M.H.-ko boluntarioek hirian lo egiten dute eta ez dute hartu eman askorik izaten errefuxiatuekin, kontsultatik aparte. Baina egunerokoan ikusten dutenaren arabera, etsipen sentimendua da nagusi etorkinen artean. "Ume txikiak dituzten familiak, bereziki, beldurtuta bizi dira, desesperatuta. Beraienzat paradisua izan behar zuen Europar kartzela moduko bat aurkitzen dute. Okerragoa. Burokrazia oso geldo doa, eta asko eta asko etsita daude" dio Mireiak.

Carolek Europar Batasunaren jokabidea salatzen du. "Lotsagarria iruditzen zait. Bera da, hein handian, egoera honen eragile eta erantzule. Niretako da krimen instituzional bat. Oso muturreko egoera batetik datoz, eta beste oso muturreko egoeran bizi dira, gutxieneko bizi-baldintzarik gabe eta duintasuna guztiz galduta. Azken batean, gu bezalako jendea da, bizi-proiektu bat duena, batzuk unibertitate ikasketak ere badituzte, baina arrazoi ezberdinengatik (gerra, krisia...) beraien sorterritik ihes egin behar izaten dute, eta oso tristea da hemen zer nolako tratua ematen zaien ikustea". Kanpalekuaren sarreran Europar Batasunaren kartel handi bat dago, kanpaleku hartan inbertitutako diruaren berri ematen duena, eta denek galdeztzen omen dute gauza bera: 'Non dago diru hori?'

Esperientzia aberasgarria izan dela aitortzen dute biek, eta, dena ondo bidean, itzuliko direla. Baina, aldi berean, gogorra dela diote. "Karga psikologikoa handia izaten da eta, beraz, komenigarria da aurretik jakitea zertara zoazen eta zer aurkituko duzun bertan" dio Carolek. ■

"Lotsagarria da Europar Batasunaren jokabidea. Bera da, hein handian egoera honen eragile eta erantzule. Krimen instituzional bat iruditzen zait"

» CAROL MAESTRO

BURUGABETZATIK BURUJABETZARA

Nabarraldeko Oñatiko sustatzaileek hitzaldi zikloa antolatu dute. Euskal Herriaren burugabetzearen jatorria eta bilakaera ulertu eta, burujabetzaren alde ekiteko gogoia piztea da helburua

Aurreko neguan Nabarraldeko Oñatiko sustatzaileek antolatu zuten 'gutaz' hitzaldi sortan, gure herriak pairatutako konkistaren mugari nagusiak aztergai izan genituen: 1200, 1512 eta 1620. Irrintziak ere entzun genituen ERRAIAK film sarituan.

Bigarren ziklo honetan aurrekoari jarraitu nahi diote, "gutaz, geuk hitz eginez". Alde batetik, konkisten ostean Bidasoaren alde bietako eskualdeen eboluzioa jorratuko dute; "independentzia galduta, zatikatuta, baina oraindik Foru eta instituzioei nolabait eutsiz. Iparraldean Frantziako iraultzara arte (1789) eta hegoaldean Karlistadak arte (1833/1872). Horrek eragin zuen gainbehera larria, politikoaz gain, kulturala".

Burugabetze prozesua beste era batzuetan kontatuta ere jasoko dugu, errazago geureganatuko dugulakoan. Alde batetik, panel informatiboz osatutako erakusketa ezarriko dute, eta bisita gidaturik ez da faltako. Bestetik, ikasketa prozesua gozagarria ere izan dadin, euskal kantetan oinarritutako hitzaldi musikatu ere antolatu dute.

Eta, ba al dakigu zer den hainbeste mende eta gudutan gure arbasoek hain sutuki defendatu zuten zera hori? Gure izaera eta jokamoldeetatik sortutako Konstituzio propioa, lekura eta neurriara egindako elkarbizitza arauekin. 'Foru Orokorra' bezala ezagututako hori (egungo 'foru' murriztuen aitzindaria) zer den jakiteko aukera izango dugu, Europako beste herrialdeetako Konstituzioekin ere alderatuz.

"Atzera begirada honek egungo gabezien jatorria ulertzen laguntzen digu. Errotik abiatuta, zentzua hartzen dute ondorengo abarrek, egoerek: nazioa zatikatua eta menderatua daukagu prozesu luze eta biolento baten eraginez" adierazi digute Nabarraldeko kideek. "Gure beharrek, baina, ekina behar dute ase betetzeko. Sinistuta gaude burugabetze bilakaeraren ulermen zentzudunak, ekintzarako gogoia pizten digula. Burujabetza berreskuratzekoa.



Miguel, Juankar eta Iñaki, Nabarraldeko sustatzaileak



Atzera begirada honek egungo gabezien jatorria ulertzen laguntzen digu eta sinistuta gaude burugabetze bilakaeraren ulermen zentzudunak, ekintzarako gogoia pizten digula. Burujabetza berreskuratzekoa



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Exebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

➔ egitaraua

'Burugabetze bilakaera Bidasoaren bi aldeetan' / ASISKO URMENETA

URTARRILAK 12, ASTEARTEA, KULTUR ETXEKO ZINE ARETOAN, 19:00

HITZALDIA 1200, 1512 eta 1620ko konkista eta usurpazioen ondorioz independentzia bahitu egin ziguten, gaurdaino. Orduz geroztik Bidasoaren bi aldeetan eboluzio propioa izan du burugabetze prozesuak, estatu menperatzaileen barne borrokek baldintzatuta. Frantziar Iraultza eta Karlistadak, bereziki. Absolutismoak goiena jo zuen prozesuotan, egungo estatu 'modernoak' sortze bidean, genozidio politikak martxan ipiniz.



'Konstituzio Nafarra: Foruak • Zuzenbide piriniarra' / ROLDAN JIMENO

URTARRILAK 20, ASTEAZKENA, KULTUR ETXEKO ZINE ARETOAN, 19:00

HITZALDIA Foruek bilakaera latza izan dute; kontzertu ekonomikora mugatzen da egun, gure zorigaitzerako. Guztiona zen Forua, konkista prozesuaren ondorioz, lurraldea bezala, zatikatua eta ondoren manipulaturia izan da, izena mantendu bai baina izana hustuta. Adibidez, entzutetsuak ditugu EAeko lurralde zein zenbait herriri Espainiako erregeek emandako 'foruak'. Hitzaldi honetan, iturburura joan nahi dugu baina, ur garbien bila: Foru Orokorra, askatasunean adostu genuen bizikidetasun paktu hartara, ahoz-ahoz luzaz bizi eta 1238an idatziz jaso genuena.



'Hitzen ahairea • Zeri kantatzen diogun' /

GOTZON BARANDIARAN ETA RAFA RUEDA

URTARRILAK 26, ASTEARTEA, KULTUR ETXEKO ZINE ARETOAN, 19:00

HITZALDI MUSIKATUA Zelan kantatu dute gure idazle eta musikariek Euskal Herria? Zein eragin (izan) dute idazle eta musikarien artean sortutako kante euskaldunon imaginarioan? Zein alde dago Historia liburuetan kontatua eta guk kantatuaren artean? Kantetarako erabili dituzten testuak eta kantari eta poeten arteko harremanak aztertuko ditugu, baita zuzenean kantatuko ere.



'Konkistaren mugarriak' / BEÑI AGIRRE • NABARRALDE

URTARRILAK 11 - 25, KULTUR ETXEKO ERAKUSKETA GELAN, 18:00 - 20:00

ERAKUSKETA (GIDATUA) Usurbilgo *Nafartarrak* eta Hernaniko *Hernani Errotzen* elkarteek Nabarralderen laguntzarekin prestatutako panelek euskaldunon historiako pasarte esanguratsuenak biltzen dituzte, kontakizun osotua eskainiz.

Bisita gidatuak izango ditugu urtarrilaren 11n eta 25ean (18:30etan).



LUR NOGALES
Licenciada en psicología | Psikologian lizentziatua | Elkargokide zk: GZO 2888

Eraldaketa eta hazkunde
pertsonalerako terapeuta.

Aurrez aurreko eta,
online saioak

Zubillaga 20, zm2 • Oñati • Tel.: 653 71 83 19

"Gutxiagorekin bizitzen ikasi behar dugu"


Planetak bizi duen klima eta ekologia krisiaren inguruan jardun zuen Oñatin Iñaki Petxarroman BERRIAko kazetariak

Nazio Batuen Erakundeak egin berri duen goi-bileran, Klima Larrialdi Egoera aitortzea eskatu die estatu kideei. Europar Batasunak 2030. urterako isurketak murrizteko helburua %40tik %55era igo du. Txina edo India bezalako herrialdeek ere iragarri dituzte neurri zorrotzak, eta Estatu Batuak ere Parisko Itunera itzuliko dira. Zer esaten dizu musika horrek guztiak?

Musika horrek esan nahi du larrialdian gaudela. Kontua da, adierazpenak eta deklarazioak egiten direla, bai, baina praktika politikoak ez direla hain garbiak.

Parisko Hitzarmena sinatu zenetik gaur arteko bost urteotako bilakaera aztertzen badugu, aurtun bakarrik bete da zientziak eskatzen diguna, alegia, urtero, mundu mailan, %7 jaistea gas isurketak. Eta badakigu nolako urtea izan den 2020a. Horrek erakusten du zein den benetako panorama. Uste dut azkarrago eta zorrotzago mugitu behar dugula.

2050. urterako karbono-neutritasuna lortzea da munduko herrialde boteretsuenek jarri duten helburua. Zer esan nahi du horrek?



Iñaki Petxarroman / Berriako kazetaria

'Ezezagunerako bidaia. Mundua, klima eta ekologia krisian' liburua argitaratu du Iñaki Petxarroman kazetariak (Lasarte-Oria, 1973), hainbat aditu elkarrizketatu ostean. Atzera-bueltarik gabeko bidaia baterantz abiatu omen da planeta, ezezagunerantz, baina oraindik garaiz gaude, neurri batean behintzat, bidean izango diren astinduak gutxitzeko. Oñatin izan da berriki, *Astintzen* dinamikaren baitan, eta berarekin berba egiteko baliatu dugu.

Karbono-neutritasunak esan nahi du, ezin dugula atmosferara isuri, lurrak (basoek, ozeanoek...) xurgatu dezaketena baino gas gehiago.

Horretarako, gure ekonomia deskarbonizatu beharra dago ahalik eta azkarren. Egingarri ikusten al duzu?

Dagoeneko superabit handia dugu isurketetan; hau da, jaso zezakeena baino askoz karbono gehiago isuri dugu atmosferara. Lurraren ezaugarri biofisikoak aldatu dira jada, eta, hurrengo hamarkadetako joera berotzea izango da; berotuko da gehiago edo gutxiago, isurtzen dugunaren arabera. Beraz, ahalik eta azkarren murriztu behar ditugu isuriak.

Baina ez hori bakarrik. Nire ustez ekoizpen eta kontsumo sistemak ere aldatu behar ditugu. Deskarbonizazioa ez da, soilik, erregai fosilak ordezkatzeko energia berriztagarriekin, zeren munduak bizi duen krisia ez da klimatikoa bakarrik; krisi ekologiko oso gogor batean gaude, bioaniztasuna galtzen ari gara, eta bioaniztasuna gure bizitza aseguru da. Naturarekin bat eginda jardutea eskatzen digu egoerak.

Trantsizio energetikoaz hitz egiten da egun, baina posible al da iturri berriztagarrietatik bakarrik sortzea sistemak behar duen adina energia.

Oso zaila da. Nekez produzitu ahal izango dugu energia kopuru berdina. Nik uste dut aldaketa batzuk sakonagoak izan behar dutela. Erregai fosilak ordezkatzu joan behar dugu, eta energia eraginkortasuna hobetuz, baina,

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

bereziki, ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatuz joan behar dugu, eta hori da sistemari min ematen diona, kapitalismoaren logikaren aurka doalako; kapitalismoak etengabeko hazkundea eskatzen digu, eta horrek ekarri gaitu hona. Gutxiagorekin bizitzen ikasi behar dugu. Kontsumoaren eta produkzioaren desazkunde batzuk gertatu beharko dira, ahalik eta modu iraunkorrean bizi ahal izateko.

Hidrogeno berdeaz ere asko hitz egiten ari da azkenaldian. Karbono-neutraltasuna lortzeko gakoa izango omen da. Nola ikusten duzu?

Nik ikusten dut erregai fosilen industria osatzen duten multinazional handiak nolabaiteko birkokatze batean daudela. Ikusten dute erregai fosilen aroa pixkanaka amaitzen ari dela, eta bilatzen ari dira beste iturri batzuk, orain arte egin dugun gauza bera egiten jarraitzeko.

Green New Deal mugimenduaren abangoardian dauden enpresak dira, eta horren atzean kapitalismo berdearen plana ikusten dut nik (hidrogeno berdea, biomasa...). Baina horiek modu masibo-industrialean sortzen direnean, azken batean naturaren legeen aurka jotzen ari gara, eta horrek dakartzan arazoak gero oso handiak dira.

Ez dut esan nahi ez denik sortu behar hidrogeno berdea edo beste gai batzuk, baina horrekin batera, eta modu akonpasatuan beste aldaketa estrukturalagoak ere bilatu behar direla uste dut.

Desazkundera aipatu duzu, baina prest al dago gizartea gutxiagorekin bizitzeko? Eta

"Klima aldaketa ez ezik, bioaniztasunaren galera ere eten egin behar da"

Ekonomia karbonogabetu egin behar da aldaketa klimatikoari aurre egiteko, baina munduak bizi duen krisia ez da klimatikoa bakarrik, krisi ekologiko gogor batean gaudela ohartarazi du Petxarromanek. "Bai, eta uste dut batera doazela. Agian, gerta liteke, nik ez dakit, baina aditu batzuek hala diote, energia iturrien ordezkatzeko batekin hazkunde berde bat ere gertatzea. Agian posible izango da, baina hazkunderaren logikari eusten bazaio, ondorioak oso larriak izango dira, bereziki bioaniztasunaren galerarekin (deforestazioa, espezieen galera...). Adituak esaten ari dira, munduan dauden zortzi milioi espezieetatik milioi bat desagertzeko arriskuan daudela, eta galera hori eten egin behar da, bioaniztasuna gure bizitza aseguru dela; hori kolokan jartzen badugu, gure bizitza ere, espeziearena, kolokan jarriko dugu. Gertatzen ari zaiguna ez da bakarrik klimari dagokion arazo bat, zabalagoa baizik, eta horri dagozkion erantzunak ere egiturazkoagoak izan behar dira".



horrek ez al du eragingo krisi ekonomiko larria?

Oso kutsagarriak diren sektoreetan (garraioa, nekazaritza eta abeltzaintza industrialak...) eman beharko litzateke desazkundera, baina beste sektore batzuetan (osasuna, ingurumena, zaintza...) hazi egingo litzateke ekonomia.

Aldaketa zailak, traumatikoak dira, oso denbora laburrean egin behar direlako; baina pandemiarekin ere egin behar izan ditugu aldaketa handiak, eta jendeak ulertu ditu, larrialdi egoeran gaudelako. Nire galdera da, hainbat herrialde eta erakundeek klima larrialdia deklaratu baldin badute, zergatik eguneroko praktikak ez datozen bat horrekin.

Euskal erkidego mailan nola ikusten duzu egoera. Ari al gara etxeko lanak egiten?

Esango nuke Europako kontestuan gaudela, *Green New Deal* mugimendua nagusitzen ari den testuinguruan, eta esango nuke Eusko Jaurlaritza eta inguru hurbileko erakundeak daudela

Europako atzeko bagoian. Eta adibide konkretu bat jarriko dut: une honetan zundaketak egiten ari dira Gasteizen, gasa ustiatu nahian. Eta beste adibide bat: Espainiak dieselari ezarri nahi zion zerga atzera bota behar izan du, Jaurlaritzan agintzen duen alderdiak nahi izan duelako, nahiz eta jakin, lehenago edo geroago etorriko dela, Parisko Hitzarmenean jasota dagoelako, eta lehenbailehen martxan jarri beharreko konpromisoen artean dagoelako, zientziak ohartarazi digulako hamarkada hau bereziki garrantzitsua dela kurbari buelta emateko.

Zein mezu igorriko zenuke?

Gauzak egiten hasi behar dugula. Aurten geldialdi bat egon da pandemiaren ondorioz, baina uste dut gizartea ari dela kontzientzia hartzen eta mobilizatzen gai honen inguruan. Pena da bizpahiru hamarkada oso garrantzitsu galdu ditugula gai honi aurre egiteko, baina orain ez dago beste irtenbiderik. Ekin egin behar da. ■

» **Deskarbonizatzea posible da, baina hazkunderaren logikari eusten bazaio, oso zalantzan dago bioaniztasunaren galdera etengo den, eta hori kolokan jartzen badugu, gure bizitza ere, espeziearena, kolokan jarriko dugu**

Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB
Simetrikoko + Del mugagabeak
IRAUNKORTASUNIK GABE

42€ HILEAN
BEZA barne

BETIRAKO


BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN
Atzeko Kaloa, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00

guuk

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZA barne. Eskaintza 2020/11/30ra arte egongo da indarrean Euskadin eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB ko doako Guuk tarifa: "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hausten bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa lineen prezioak izango dituzte, GB eta doako minuta kopuru berarekin. 1GB ko doako Guuk tarifaren kasuan, prezio berria 4,99€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" paketea bakoitzeko linea osagarriaren gabezia 4 litro da, linea nagusia kontsumo hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du lekuartasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: 10ko eta mugikorraren nazionalitateko del mugagabeak, 7GB eta 40MB rolin. Mugagabe hori gairatzean, abildura 16 Kb/s ia jaitziko da. Itahi dizunon eman diezazketez bera zerbaitzari, baina itzeratzean 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 1216-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZA barne). Kontsultatu gurekin beldiritzak hemez: www.guuk.eus



Sei asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko

Errege ostean hasiko dira Ugarkaldeko jolas parkea estaltzeko lanak

Azken orduko ustekaberik ez bada, Errege egunaren bihar-munean hasiko dira Ugarkaldeko jolas parkeari estalkia jartzeko lanak. Urtarrilaren 7an hesitu egingo dute eremua, eta hilaren 11n ekingo zaie hondeaketa lanei.

Argazkiak erakusten duen moduan, estalkiaren egitura eratzeko altzairuzko hodiak erabiliko dira, arku formako sigi-saga eratuz. Materiala, berriz, ETFE motako polimero gardena izango da, eta argiak ere edukiko ditu. Denera, 170 metro kuadroko azalera hartuko du egiturak, 4,40 eta 6,45 metro arteko altuera aldakorrarekin. Jolas eremuaren zati nagusia estaliko da, fisikoki berezita dagoen txirrista handiaren elementua estalkitik kanpo geratuko baita.

Carpas Zaragoza S.L. enpresak egingo ditu lanak 123.470€-tan (+BEZ), *Taperstudio Arkitektura* enpresak idatzitako proiektuaren arabera, eta sei bat asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

Gogoratu, Partaidetzazko Aurrekontuak 2019-2020 egitasmoaren baitan herritarrek aukeratutako proiektuetako bat izan zela Ugarkaldeko jolas parkea estaltzea. ■

Brigadako pioi galdaragile plaza betetzeko deialdia egin du udalak

LANPOSTU DEIALDIA Udal brigadako pioi galdaragile lanpostua lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia egin du udalak. Urtarrilaren 15era arteko epea dago eskaerak aurkezteko udaletxeko HAZ bulegoan. Lanpostura aurkeztu ahal izateko oinarrizko baldintzak hauek dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua titulua, oinarrizko lanbide titulua edo parekoa izatea; B gida baimena, eta euskarari dagokionean, lehen hizkuntza eskakizun maila izatea. Udalaren webgunean kontsulta daitezke deialdia arautuko duten baldintza eta oinarriak.

2021eko aurrekontuak onartu ditu Debagoieneko Mankomunitateak

AURREKONTUAK 11.632.992 euroko aurrekontua izango du Debagoieneko Mankomunitateak aurten, 2020koa baino %18 handiagoa. Hala ere, udalek egin beharreko ekarpena %2,3 txikiagoa izango da.

EH Bilduren gobernu taldeak landutako aurrekontu proposamenari Leintz-Gatzagako ordezkariak egindako proposamena (eskualde sarreretako panelak berritzea) txertatu zaio. Antzuola, Bergara, Elgeta eta Oñatiko ordezkarien (EH Bildu) eta Leintz-Gatzagako independenteen aldeko boroz onartu dira aurrekontuak. Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzakoak (EAJ) abstenitu egin dira.

'Geuretik sortuak' egitasmoan parte hartuko du udalak

Euskaraz sortu eta lan egingen duten artistei laguntzeko asmoz, Udalbiltzak sustatzen duen 'Geuretik sortuak' programan parte hartuko du Oñatiko udalak, Euskal Herriko beste 25-30 udalerrirekin batera. 2021eko lehen erdian, euskarazko lanak sortzen laguntzeko egonaldiak antolatuko dira, eta sortutako lanak erakusteko zirkuitua osatuko da ondoren.

Proiektuak 700.000 euro inguruko aurrekontua du, eta Oñatiko udalak 15.000 euroko partida bereizi du horretarako. Urte hasieran egingo da sortzaileentzako deialdi irekia, eta batzorde batek erabakiko du zein proiektu hautatu eta bakoitzak zein herritan egingo duen egonaldia.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

JABETZE ESKOLA

EMAKUMEENTZAKO



2020-2021
ikasturteko
Jabetze Eskolako
ikastaro-tailerren
egitarau osoa

Udaleko Berdintasun sailak 2020/2021 ikasturterako antolatu duen Jabetze Eskolak bere bidea egiten jarraitzen du, eta urtarrilarekin batera lau tailer edo ikastaro berri jarriko dira martxan. Gogoratu, tailer bakoitza hasi baino hamar egun lehenagora arte dagoela zabalik izen-ematea, HAZ bulegoan edo www.onati.eus webgunean. Informazio gehiago: berdintasuna@onati.eus / 943780411 (010).

Me pongo flamenca KOMUNIKAZIO TAILERRA

IKASTAROA Flamenkoaren bidez, nor bere buruarekiko eta beste pertsonerekiko komunikazioa hobetzea da Mónica Nuñezek gidatuko duen tailerraren (gaztelaraz) helburua. Pedagogo formazioz, flamenko-kantaria eta irakaslea ere bada, eta garapen pertsonaleko tailerrak ematen ditu. "Komunikaziorako benetako artea da flamenkoa, autentikoa, ausarta, sentibera eta indartsua.



Benetan garen bezalakoak izateko bidea ematen digu, eta horrek lagundu egiten du autoestima indartzen, eta geure gorputzaren, ahotsaren eta komunikatzeko moduaren kontzientzia hartzen". Bi saiotan egingo da tailerra (urtarrilak 16 eta 23 / 10:30-14:30 eta 16:00-18:00).

Geure burua ezagutzea eta ahalduentzea ARGAZKILARITZAREN BIDEZ

IKASTAROA Argazkilaritza autoaurkikuntzarako tresna garrantzitsua izan daitekeela deskubrituko dugu Adirane Azkuenagak gidatuko duen tailer (euskaraz) honen bidez. Gure alderdiak deskubritu ditzakegu, ez bakarrik atzematen ditugun irudiak behatuz, baita barne-prozesuak eta autoerreturatu adierazten diren emozioak aztertuz ere. Kamera foku biko lente gisa erabiliko da, munduari begiratzeko eta baita gure sakonean begiratzeko ere. Urtarrilaren 18tik otsailaren 15era (astelehenak, 18:00-20:00).



Nork bere burua zaintzen eta maitatzen ikastea ZAINZA EREDU BERRIAK

IKASTAROA Bi atal nagusi jorratuko dira Kontxi Lopez Soriak gidatuko duen ikastaroan (urtarrilaren 20tik martxoaren 24ra, asteazkenetan 14:30-16:30, gaztelaraz). Batetik, gaur egungo zaintza ereduaren inguruko hausnarketa egingo da: zergatik gaude emakumeak "derrigortuta" zaintza lanak egitera?



Bestalde, talde-dinamiken bidez, hainbat teknika landuko dira (erlaxazioa, meditazioa, autoezagutza, gorputzaren kontzientzia...) gaitzakerak eta ondorez arintzen, eta geure burua hobeto zaintzen eta gehiago maitatzen lagunduko digutenak.

Autodefentsa feminista (euskaraz eta gaztelaraz)

IKASTAROA Tailer honetan emakumeen ahalduentzea landuko da, baina horretarako, aurrena, sistema patriarkalak emakumea nola des-ahalduentzen duen detektatu behar da, bai indibidualki eta baita kolektiboki ere. Eta ariketa hori egin ondoren, desberdintasun horren adierazle den indarkeria matxistaren gaia jorratuko dugu, indarkeria mota ezberdinak identifikatu, indarkeria psikologikotik hasita, hedatuena eta, aldi berean, ikusezina delako, eta indarkeria horiei aurre egiteko ditugun tresnak, indibidualki eta kolektiboki, jorratuko ditugu. Askotan, aurreiritzi patriarkal asko normalak balira bezala barneratuta ditugula jabetuko gara. Teoria eta praktika uztartuko dituen 8 orduko ikastaro trinkoa izango da. Euskarazkoa (urtarrilak 30) *Emagin* taldeak gidatuko du, eta gaztelarazkoa (otsailak 6) Maitena Monroyk.



SOLASALDIA

Wiki-Emakumeok

URTARRILAK 27



Wikipedian dagoen genero arrakala edo berdintasun ezari aurre egiteko asmoz sortu zen 2015ean **WikiEmakumeok** proiektua, hiru helburu nagusirekin: erreferente izan zitezkeen emakumeak bistaratu, editore emakumezkoen presentzia areagotu, eta jada idatzita dauden artikuluetan genero ikuspegia erantsi.

Taldeko hiru kide (Sonia Francisco, Mentxu Ramilo eta Marisa Barrera) etorriko dira Oñatira egiten ari diren lanaren berri ematera, urtarrilaren 28an, zine aretoan, 18:00etan



ANDREA AZKOAGARENA, ERAKUSLEIHO POLITENA

Kimu-Urtxin loradendak jaso ditu bigarren saria eta herritarrena, eta Baruek hirugarrena

Abenduaren 18an egin zen Oñatiko XIII. Erakusleihu Lehiaketako sari banaketa. Aurten, ohi ez bezala, sarituen dendetan egin zen sari-emate ekitaldia. Konposizioa, argiztapena, kolorea eta originaltasuna baloratu ostean, epaimahaiaren erabakiz **Andrea Azkoaga** Interioristarentzat izan da lehen saria (500€), **Kimu-Urtxin** loradendarentzat bigarrena (300€), eta **Barue** Interiorismoa dendarentzat hirugarrena (200€). Herritarren saria (500€) **Kimu-Urtxin** loradendak irabazi du, boto guztien (1.046) %26 eskuratuta. Bozka eman zuten herritarren artean zozkatutako 200€-ko saria Raket Lizarralderentzat izan da. Udalak eskerrak eman dizkie lehiaketan parte hartu duten 21 saltokiei eta botoa eman duten herritar guztiei.

Hamar gai, hamaika berba

» Oñatiko EH Bilduk **hitzaldi zikloa** antolatu du 2021erako.

Mundua etengabe aldatzen doa, eta egun bizi ditugun erronkak ez dira nolanhikoak. Egunerokotasunaren zurrunbiloak, ordea, momentuan-momentukoei erantzutera eta, batez ere, epe motzeko logikan jokatzera behartzen gaitu. Horregatik, Oñatiko EH Bilduk uste du beharrezkoa dela bizi ditugun desafio nagusien inguruan hausnartzeko espazioak sortzea herrian, eta horixe da, hain zuzen, antolatu duen hitzaldi zikloaren helburu nagusia: gaur egun munduan ematen ari diren joera nagusien inguruan patxadaz solasean egitea, herritarrekin, eragileekin eta adituekin batera.

Hamar solasaldiz osatuko da zikloa, eta saio bakoitzean gai baten inguruan arituko dira. Gaiari aditu diren bi edo hiru hizlarik hartuko dute parte hitzaldi bakoitzean. Jorratuko dituzten gaietako batzuk hauek dira: infoxikazioa, fluxu migratorioak, automatizazioa, megahiriak, larrialdi klimatikoa edo genero arrakala. Interes handiko gaiak direla uste dute, eta gonbidatuko dituzten hizlariak, punta-puntakoak.

URTARRILEAN, LEHENA

Urtarrilean ekingo diote hitzaldi zikloari. Lehenengoaren izenburua hauxe da: 'Infoxikazioa: ezagutza eta iritzi publikoaren eraikuntza informazioaren gizaratean'. Urtarrilaren 13an, asteazkena, egingo da Santa Ana aretoan, 18:30ean. Ekai Txapartegi, EHUko filosofia irakaslea, informazioaren

LEHENENGO HITZALDIK

URTARRILAK 13, 18:30

**INFOKAZIOA:
EZAGUTZA ETA
IRITZI PUBLIKOAREN
ERAIKUNTZA**



INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

Hizlariak: Ekai Txapartegi (EHUko filosofia irakaslea), Iraia Oiarzabal (Gara-ko kazetaria) eta Ugo Mayor (ikerlaria)

OTSAILAK 17, 18:30

**FLUXU MIGRATORIOAK ETA EUSKAL HERRIAREN
ERRONKAK KULTURA ANITZEKO TESTUINGURUAN**

Hizlariak: Imanol Esnaola (Gaindegiako koordintzailea), Andoni Olariaga (Iratzar Fundazioa) eta Maggie Bullen (EHUko antropologia irakaslea).

MARTXOAK 24, 18:30

**MEGAHIRIEN GARAIA, HIRIRAKO ESKUBIDEA ETA
PERTSONENGAN OINARRITUTAKO HIRIGINTZA**

Hizlariak: Imanol Esnaola (Gaindegiako koordintzailea), Andoni Olariaga (Iratzar Fundazioa) eta Maggie Bullen (EHUko antropologia irakaslea).

gizartea deitzen dugun honetan ezagutzaren bueltan sortu den auziari buruz jardungo da. Iraia Oiarzabal Gara-ko kazetariak hedabideetan ematen den desinformazioaz berba egingo du. Eta Ugo Mayor ikerlariak infoxikazioaren gaia Covid 19aren krisiarekin lotuko du.

SARRERAK AURREZ HARTZEKO AUKERA

Hitzaldietarako sarrerak aurrez hartzeko aukera izango da Oñatiko Udalaren plataforman digitaletan (www.oñati.eus) eta Txokolateixan. Sarrera doan izango da, baina bizi dugun egoera berezia dela-eta, aurrez hartzea gomendatzen dute. ■

ELKAR HEZI




guraso
ausartak




irakasle
konprometituak






ikasle
motibatuak

ELKARLANAREN ARRAKASTA

ATE IREKI
PERTSONALIZATUAK

Hitzordua adosteko:

idazkaritza@elkarhezi.eus

 943 71 82 72  688 621 195

Gure altxorrak



Herrigintzan aritzeko beste modu bat

Euskarazko Wikipedia hobetzeko 2020ko lehiaketa irabazi du Iñazio Irizarrek 'Funtsezko artikulua' atalean. Hogei artikulua landu eta aberastu ditu.

Munduan 312 Wikipedia daude gaur egun, eta artikulua kopuruaren arabera euskarazkoa 31. tokian dago, 376.166 artikulurekin (abendua 3ko datua).

Ez da datu makala, gure hizkuntzaren tamaina kontuan hartuz, baina oraindik ere hobetu beharra dauka eremu askotan (kalitatean, bereziki), eta horixe da, hain zuzen ere, Euskal Wikipediak antolatzen duen lehiaketaren helburua.

2020ko lehiaketa lau eremutan antolatu da: 'Funtsezko artikulua', 'Udalerrak', 'Emakumeen biografiak' eta 'Txikipedia', eta horietako lehenengoan parte hartu du Iñazio Irizarrek.



FUNTSEZKO ARTIKULUAK

Munduko wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluen zerrendari esaten zaio 'Funtsezko artikulua', eta horien artean Euskal Herriko koordinazio taldeak aukeratutako 200 artikulua osatzea eta garatzea zen helburua.

Lehiaketari ekin aurretik, batz bestea 5.000 eta 6.000 *byte* arteko neurria zuten artikulua horiek, eta helburua zen eduki bakoitzak 30.000 *byte* izatera iristea.

Aukeran zeuden 200 artikulua horietatik 20 landu ditu Irizarrek (ikus ondoko taulan) eta bera izan da puntuaziorik altuena lortu duen wikilaria. Berak garatutako edukiek 91.000 *byte* dituzte orain, batz bestea, eta 'Esklabotza'ri buruzkoa, adibidez, wikipedia guztien artean handiena da, 226.332 *byte*-kin. "Behin lanean hasita, 'engantxatu' egiten zara, eta ez duzu nahi artikulua beste hizkuntza batzuetan baino pobreagoa uztea" adierazi digu.


Ingelesezko wikipedia izaten du oinarri, espainierakoa eta frantsesekoa lagungarri hartuta, eta, tarteka, eskura duen dokumentazioa ere kontsultatu behar izaten du. 'Esklabotza'ko artikulurako, esaterako, oso baliagarria gertatu zaio Jose Antonio Azpiatzuren *Esclavos y traficantes. Historias ocultas del Pais Vasco* liburua, eta baita Argia aldizkaria ere.

HERRIGINTZARI EKARPENA

Duela lau urte, erretiroa hartzearekin batera, hasi zen Irizar euskal wikipedia elikatzen, herrigintzari ekarpen bat egiteagatik. "Munduko entziklopediarik handiena da Wikipedia, dohainik kontsultatu dezakezu gura duzuna, artikulugileak dohainik aritzen direlako, eta uste dut inportantea dela euskarazko wikipedia ahalik eta osatuena egotea". Normalean, hilean artikulua bat lantzea izaten du helburu, baina, aurten, COVID-19ak eragindako konfinamendua dela eta, etxetik kanporako beste zeregin batzuk alde batera utzi behar izan dituzte, denbora gehiago eskaini ahal izan dio euskal wikipedia elikatzeari. "Bere denbora eta dedikazioa eskatzen duen lana da, jakina, baina aldi berean asko ikasten da, gai ezberdinetan sakondu egin behar duzulako". ■

Iñazio Irizarrek landutako 20 ARTIKULUAK

- 1- Noam Chomsky
- 2- Leonardo da Vinci
- 3- Albert Einstein
- 4- Marie Curie
- 5- Mahatma Gandhi
- 6- Charles Darwin
- 7- Martin Luther King
- 8- Sigmund Freud
- 9- Nobel Sariak
- 10- Rabindranath Tagore
- 11- Gurutze Gorria
- 12- Esklabotza
- 13- Pablo Picasso
- 14- Che Guevara
- 15- William Shakespeare
- 16- Heriotza zigor
- 17- Karl Marx
- 18- Franz Kafka
- 19- Vincent van Gogh
- 20- Anton Txekhov



WIKIPEDIA
Entziklopedia askea

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

'Zure osasuna hobetu'

Doako online tailerrak, Iturrigorri Elkarlan elkartearen eskutik, udalaren babesarekin

Emozioek, pentsamenduek eta sentimenduek inpaktu zuzena dute gure organismoan. Gatazkei aurre egiteko dugun moduaren arabera, aukera gehiago izango dugu antsietatea, estresa edo depresioa nozitzeko, XXI. mendeko gaixotasun ohikoenak. Estresatutako burmuin bat, pentsamendu toxikoz gainezka bizitzearen ondorio da.

Hori guztia kontuan hartuz, ITURRIGORRI ELKARLAN elkarteak (leuzemiaren eta gaitz hematologikoen aurka eta hezur-muinaren donazioen alde lan egiten duen elkartea) bost tailer eskainiko ditu, goian aipatutako arazoak aztertu eta gainditzen laguntzeko erremintak lantzeko.

Beste urte batzuekin alderatuz, aurten, berrikuntza bezala, bio-ingeniaritza kuantikoan murgilduko dira, giza gorputza OSOTASUNEAN aztertuz. Azken batean, bio-ingeniaritza kuantikoa bezalako hitz potolo horren atzean sistema terapeutiko bat dago, honako alderdi hauek lantzeko:

- Bizi-energia berreskuratzea
- Gorputza eta gogoia edo burua erreseteatzea edo berrabiaraztea.
- Geure buruarekin berriro konektatzea
- Egoera ezberdinen ondorioz, galdu dugun Ilusioa, positibismoa, aldarte ona eta zorientasuna berreskuratzea.

Iturrigorri Elkarlan elkarteak eta Oñatiko udalak herritar guztiak gonbidatzen dituzte 'Zure osasuna hobetu' izenburupean egingo diren tailerretan parte hartzera. **Dohainik dira.** Ez galdu aukera.



Zoom bidez emango dira tailerrak, urtarrilaren **14, 19, 21, 26 eta 28an**, 18:00ak eta 19:30ak bitartean. Dohainik dira. Izena emateko: maribelpacheco@gmail.com / 687 752 842.



ANTIXENA GAZTETXEAK 8 URTE

Antixena Gaztetearen 8. urteurrena ospatzeko prentsaurrekoa eman zuten Oñatiko Gazte Asanbladako kideek abenduaren 20an. "15 urte pasa dira Kasablankako gaztetea era anker batean bota zigutenetik. Miña, amorrua, tristura sentitu zuten gazte askok" gogoratu hasi ziren, baina, batez ere, gerora etorri diren gazteen loraldi berriak eta hauek abian jarritako proiektu kolektiboak goraiatu zituzten. Azken 8 urteotan Antixenak egindako lana azpimarratu zuten, autogestioa eta auzolana oinarri, eta herrian eragiten jarraitu nahi dutela esan zuten, elkarrekin, gauza ederrenak egiteko daudelako.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerran izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Oñatiko EAJ udal taldeak herriko ostalariek sinatutako gutunaren harira

Ainhoa Galdos (EAJren Udal Taldea)

Azaroaren 27an, Goienako komunitatean herriko hainbat ostalarik idatzi bat argitaratu zuten. Oñatiko EAJ udal taldeak ostalaritzari laguntzeko udalean aurkeztu eta publiko egin zituen proposamen batzuen inguruan esaten zen beraien egoeraren erabilera politikoa egin zuela gure udal taldeak eta, gainera, EAJk publiko egindako oharrean ostalarienganako adierazten zituen elkartasun hitzak ez zituztela sentitzen.

Ukaezina da mingarria izan zela udal taldea osatzen dugunontzat, gure borondate on guztiarekin ostalariek bizi duten egoera zaila arintzeko gure aletxoak jartzen saiatzeagatik, horrelako hitz gogorrak entzutea. Gauzak ongi egiten asmatzea ez da beti borondate kontua izaten eta argi zegoen kasu honetan ez genuela ostalariekiko gure gertutasuna adierazten asmatu. Horren ondorioz, bi aldeentzako mingarria izan den gaizki ulertu bat sortu zen. Beraz, autokritika egitea eta gaizki ulertua argitzea beharrezko egin zitzaizkigun eta, bilera bat antolatzeke, idatzia sinatzen zuten ostalarietako batekin harremanetan jarri ginen gure gertutasuna adierazten ez asmatzeagatik barkamena eskatzeko eta gaizki ulertua argitzen saiatzeko.

Bilera horretarako hitzordua zehaztu bazen ere, azkenik bertan behera geratu zen eta aurrez aurre argitu nahi genituenak gutun baten bidez argitzea erabaki genuen. Horrela, Goienako komunitatearen gure atalean irakur daitekeen gutuna idatzi genien eta publiko egin dugu, ostalariak alde zuzenetik jakinaren

gainean jarri ondoren, guri zuzendutakoa ere publiko egin zelako.

Gure akatsak onartuta eta gaizki ulertua argitzen saiatuta, espero dugu behintzat aurrerantzean bi aldeen arteko harremanak hobetzeko eta indartzeko balioko duela trago mingots honek. EAJ udal taldearen ateak zabalik dituzte ostalariek, gainerako oñatiarrek bezalaxe.



Bebarru xume bat

Ni enaiz bapebe katolikoazalia, baiña ermita batzuk, katedral batzuk, erretablo batzuk... artia... oso gustoko dot. Ba ikusi aurtengo Gabonetan ze "Belen" topau doten gure herriko bebarru xume baten. **Kepa Elortza**

Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak


Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

BATUAK S.L.

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Lehen argi-printzak bidearen amaieran

 Inoiz imaginatuko ez genukeen errealitatea bizitzea egokitu zaigu iragan berri den urtean. Ziurgabetasunak gure alboan jarraitzen badu ere, iragana atzean utzi, eta bizi izandakotik ikasiz, aurrera egiteko unea iritsi zaigu. Bide luze honen amaieran, lehenbailehen argi printzak topatuko ditugulakoan, urte berri on guztioi!



NAGORE GOÑI

'Maisu Nikolas' gazta

Urte bukaerarekin batera, Arantzazuko Gomiztegi Kooperatiba Txikiak "Maisu Nikolas" izeneko goi-mailako gazta sorta berezia kaleratu du, Artzain Eskolako eta Gomiztegi baserriko erreferentia izan den Nikolas Segurola frantziskotarraren omenez.

Gazta hauen selekzioa dastatzaile profesionalen eta Gomiztegi lan-taldearen artean egin da. Produktu berri honen ezaugarriak ezberdinenak da azal naturalarekin aurkeztu dutela.



Odolak beharrezko izaten jarraitzen du

Urtarrilaren 8an egingo da urteko lehen odol ateraldia Oñatin. Orain arte bezala, Enpresagintza fakultatean egingo dira ateraldiak, osasun egoerak eskatzen dituen protokolo bereziak zainduz.

Hala, aurretik emandako orduan joan behar da odola ematera, eta horretarako bi aukera daude:

- 1.- Donostiatik odola emateko gonbidapena jaso duten odol emaileek ateraldiko egunean ordua eskatzea.
- 2.- Gonbidapena jaso ez dutenek, edo lehen aldiz odola eman nahi dutenek ordua eskatzea, egunean bertan (08:30-13:30) 943007884 zenbakira deituta. Ateraldiak 16:30etan hasten dira eta 20:00ak arte luzatzen.



2021
denboraldiko
bizikletak!




Oñabike

BIZIKLETAK - PATINETEAK - KIROL ERIPAZIOAK

oñabike.com Otadui 25, Oñati
Tel: 943 78 05 65



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

MILESKER URTE BEREZI HONETAN ERE GUREKIN EGOTEAGATIK!!

Aurten ere, urte zaila izan arren, mila bizipen konpartitu ditugu Oñatiko Haur eta Gaztetxoekin. Espero dezagun hala ere datorren urte berria hobea izatea, eta elkarrekin beste une alai eta gogoangarri asko bizi ahal izatea!!



BERROBITIK DATOR NOTIZIA



Tolosatik bost kilometrotara dagoen herritxoa da Berrobi. 550 bat bizilagun. Gipuzkoako herri txikienetakoa da: ixa hiru kilometro karratu besterik ez du. 1978an hemengo maixu izendatu ninduten. Orduan, "Eskola Nazionaletan" Irakaskuntza guztia gazteleraz zenez, hiru urte barru gai guztiak euskeraz irakastea lortu genuen. Hogeita zortzi urte bertako irakasle izan naiz. Orain jubilatuta nago bertan biziz.

Gaur kontatzera natorkizuena, berri oso bitxi, paregabe, pozgarria eta ziurrenez Euskalerrri mailan (eta Europan ere akaso) bakarrenetako bat izango



Bittor Madina

da. Elduaingo "Basantzene" baserriko bi ahizpek, Miren (1920-2010) eta Anastasia (1925-2006), Berrobiko Alberto eta Ximonekin ezkondu, **hamaikana seme-alaba** egin zituzten 1942 eta 1968 bitarteko urteetan. Bost ezik, beste guztiak etxean erditu zituzten. Denera hogeita bi lehengusu-lehengusina dira.

2020. urtean gaude. Harrigarriena eta miragarriena hauxe da: **gaur egun, bi kabietan jaiotako 22 seme-alaba guztiak geure artean eta gehienak Euskalherrian bizi direla, hau da, inortxok ere ez duela betirako aldegin.**

Miren eta Anastasia alaiak, baikorrak izan ziren. Gaztetatik neskame, lantegian lana, euren senarren baserrietara ezkondu ziren. Honela zioen Mirenek orain hamar urte: "**Lan eta buruhauste piloak izan ditut, baina, aldi berean, poz**

galanta ere. Esker ezinezko oparia eman dit bizitzak: **hamaikagarren alaba izan genuenetik berrogei urte pasa igaro dira eta den-denak bizi zaizkit**".

Beste ahizpa Anastasiari entzuna diot: "**Gure 11 seme-alabak oso sanoak, bizkorrak, hortz onekoak eta betaurrekorrik gabekoak dira: hau da, perfektoak**".

"*Familia bakoitza Gabonetan edota ama zenaren urtebetetzean elkartzen gara mahaiaren bueltan. Eta bestalde, bi familietako lehengusu-lehengusin guztiok urtero maiatzaren batean elkartzen gara. Gurasoen babesean gaudela sentitzen dugu biltzen garen bakoitzean*". ■

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan, ohitura aldaketa txikiek, gure bizitzetan aldaketa nabarmenik suposatzen ez badute ere, ingurumenean epe ertain eta luzean, aldaketa positiboak dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@
tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Urtarrila



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Erosketak egitera joan aurretik ez ahaztu etxetik zure poltsak hartzen. Guztiok beti berdina egin ezker ez litzateke plastikozko poltsen beharrik egongo.



Kultura jasangarriaren txokoa:

"Dos pajaritos" (Dipacho. Edit. Random House-Mondadori). Haurrei zuzendutako ipuina, Oñatiko liburutegian aurkitu dezakezue. Burugabeko erosketak masiboen inguruko alegoria bat da eta umeei zuzenduta egon arren, helduei begiak zabaltzeko balio du.



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Gasolinadun auto batek, orduko 100 kilometrotara, kontsumitzen den gasolina litro bakoitzeko 23gr/km CO² isurtzen dira gutxi gora behera (www.noticias.eltiempo.es). Kontutan hartzeko datua, ezta?



Ekimen jasangarri bat:

Autoz ibiltzeak suposatzen duen CO₂ isurketen datua jakinda, zergatik ez zara apurka-apurka zure ohiturak aldatzen hasten? Lanera oinez, bizikletan edo patinetean joan zaitezke adibidez.



ZUBIKOA PILOTALEKUA ITXURA BERRITUTA

Itxura berrituta eta dotore ikusiko dugu laster Zubikoa pilotalekua. Azaroan hasi ziren pilotalekua neurri ofizialetara egokitzeko lanak. Horretarako, metro erdi altxatu behar izan dituzte frontisa eta ezkerreko orma, 7. koadroraino. Horrez gain, zorua eta kontraktxako txapa eta frontis inguruko toldoa berritu dituzte, eta, bide batez, kolorea ere aldatu diote, gris ilunez margotu baitituzte ormak, orain arteko berdearen ordeaz. Gainera, eserleku berriak ipiniko dituzte. Urtarrilaren 12rako lanak amaituta egotea espero dute.



Rokodromo txikia prest

Argazkian ikusten den moduan, rokodromo txikia egokitu du udalak kiroldegiko arrapalaren hasieran, ezkerreko orman. 2018ko Aurrekontu Parte-Hartzaileetan herritarrek hobetsitako proiektuetako bat zen hau, "herri gunean altuera txikiko rokodromo bat egokitzea, adin eta maila ezberdinetarako aproposa". Aukera ezberdinak aztertu ondoren, kiroldegiko hau aukeratu du udalak, eta Mirari Sagarzazuk margotutako muralaren gainean kokatu dituzte presa edo heldulekuak.



Aldagela berriak Azkoagainen

Ikusteko dago oraindik noiz itzuliko diren lehiaketa ofizialak berriro Azkoagainera, baina aldagela berriak behintzat prest daude, argazkian ikusten den moduan. Egitura modular berria ipini dute eraikin zaharraren lekuan, eta kirol taldeentzako bi aldagela, epaileentzako bat, biltegia, garbitokia, komunak, bulegoa, bilera gela eta fisioterapia gela egokitu dituzte bertan. Algeco Construcciones Modulares enpresak egin ditu lanak 70.795€-tan.

Iban Perez, Gipuzkoako Triatloi federazioko buru



Iban Perez oñatiarrak Gipuzkoako Triatloi federazioko presidente izaten jarraituko du hurrengo lau urteetan.

Herrialdeko klubetik harrera estutu eta harrobia lantzea dira, besteak beste, esku artean dituen egitasmoak.

Josu Osa, Gipuzkoako Pilota federazioan



Itziar Lete mutrikuarra buru duen zerrenda bakarra aurkeztu da zuzendaritza taldea hautatzeko prozesura.

Pilota federazioaren historian presidente kargua hartzen duen lehen emakumea izango da, eta zazpi laguneko lantaldean Josu Osa oñatiarra egongo da bokal gisa.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

0-1 urte
Matrikulazioa
urte osoan zabalik

Hezkuntza eraldatzen ▶ Matrikulazioa



**Bisita gidatuak
eta Elkarrizketa
pertsonalak**



**Matrikula epea
HH2-DBH4**



Bulego ordutegia: 08:00-18:00 • Tel.: 943781204



Duela 500 urte euskaraz idatzitako maitasun poema baten zirriborroa aurkitu dute Oñatiko Artxibo Historikoan

"*Ene laztan gozo ederra / penaz penaçen naçu...*". Hala hasten da Azkoitiko XVI. mende hasierako notario-protokolo batean aurkitu duten euskarazko testu anonimoa. Rosa Ayerbe ikerlariak aurkitu du, Oñatin dagoen Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan, ustekabean, ikerketa bat egiten ari zela.

Ondoko argazkian (gorriz nabarmenduta) ikusten den moduan, euskarazko esaldiak gaztelaniazko testu batek uzten dituen zirrikituen artean idatzita daude, orrialde baten ertzetan eta hitz artean.

Artxiboko lantaldeak, Iago Irijoa historialariaren eta Ander Ros filologoaren laguntzarekin egindako lehen azterketen arabera, uste da Miguel Ibañez Insausti eskribauaren bulegoan lan egiten zuen eskribautzarako ikasle batek idatzi zituela testuok, 1508-1521 artean. Beraz, euskaraz gorde diren poema zaharrenak lirateke, nahiz eta horrek ez duen esan nahi idatzi ziren lehenak direnik. Testuaren analititik ondoriozta daiteke euskaraz idazteko tradizioa bazegoela, izan poemak, izan bestelako testuak.

Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren web orrian dago ikusgai agiria, eta honen inguruan egin diren azterketa ezberdinak: lehen transkripzioa eta interpretazioa, azterketa paleografikoa, orduko giroaren azterketa...



Sancti Spiritus Unibertsitatearen historia soziala


Unibertsitateak herrian izan zuen eragina aztertu du Jose Antonio Azpiatzuk

Sancti Spiritus Unibertsitatearen alderdi akademikoak aztertu izan dira lehenago ere, baina Jose Antonio Azpiatzuk (Legazpi, 1944) alderdi sozialean jarri du fokua **Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatearen historia soziala** liburuan. Hiru mende luzez (1542-1901) Espainiako iparraldeko unibertsitate bakarra izan zenak Oñatiko herrian izan zuen eragina aztertu du ikuspuntu ezberdinetatik.

Oñati herri inportantea zen XVI. mendearen amaieran, ia 5.000 biztanlerekin (Gipuzkoako 70.000 zituen), baina, hala ere, urtero 300, 400 edo 500 ikasleren presentziak ezinbestean eragin behar izan zuen eguneroko bizimoduan. Datu bat, horren lekuko: 1789-1790 ikasturtean 50etik gora ikasle-ostatu zeuden Oñatin. Aberastasuna ekarri zuen "kerik gabeko lantegia" izan zen unibertsitatea, Azpiatzuk dioen moduan. Baina, jakina, tartean liskarrak ere sortu ohi ziren herriko gazteen eta ikasleen artean, eta hauen ondorioz, baita alkatearen eta ikasleen gaineko ardura zuen errektorearen artean ere. Ikasleek herriko neskatekin izandako harremanek ere behin baino gehiagotan amaitu zuten auzibidean. Horietako asko jaso ditu Azpiatzuk, garaian garaiko ohituren berri emateko balio dutenak.

Ikasleen jatorriari dagokionez, Euskal Herrikoak eta Errioxa, Burgos nahiz Kantabriakoak ziren gehienak, baina Mediterraneo aldetik (Valentzia, Andaluzia...), Kanarietatik, Irlandatik eta Italiatik etorritako ikasleak ere dokumentatu ditu. Baita indianoen semeak ere, eta Lesmos-eko (Lugo) kondearen seme bat ere agertzen da 1613ko ikasleen artean. Eta harrigarria bada ere, Oñatiko emakumezko bat ere (M^a Antonia Kortazar) aurkitu du 1806ko ikasturtean, batere ohikoa ez zena garai hartarako.

Unibertsitatearen barne ekonomiaz, Mercado Zuazolak utzitako ondasunak beraientzat hartu nahi izan zituzten administrazioaileez, eta krisi garaietan unibertsitateari eusteko hartu behar izan ziren neurrien berri ere ematen da liburuan. Herriko liburu dendetan eta Txokolateixan dago salgai liburua.



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



Oñatiko rockaren historia

Alanbre-hotsa eta jazbana liburua idatzi du Iñigo Biain Berraondok. 1965tik hona Oñatin izan diren 120 rock taldeen eta garaian garaiko giroaren berri jaso du.

Rock musikak Oñatin izan duen bilakaera jaso du Iñigo Biain Berraondo kazetari eta musikariak *Alanbre-hotsa eta jazbana* liburuan. Jerardo Elortza bildumaren baitan udalak argitaratzen duen hirugarren lana da.

Izenburuak aditzera ematen duen moduan, kitarra elektrikoa (alanbre-hotsa) eta batera (jazbana) erabili dituzten musikariak bildu ditu Biainek rockaren eremuan, eta, hala, esan liteke 1965ean hasi zela rockaren historia Oñatin, *Los Culpables* taldearekin.

Gerora, beste hainbat talde eta bakarlari etorriko ziren, batez ere 90. hamarkadatik aurrera, 120ko zerrenda osatzeraino. Kopuru ikaragarria, Oñati bezalako herri batentzat.

Baina esku artean dugun liburu hau musika taldeen zerrenda edo katalogo soil bat baino askoz gehiago da. Garai bakoitzeko testuinguru sozio-politikoa ere azaltzen du egileak, horren arabera baita unean uneko kultur erantzuna ere, eta protagonisten testigantzek ere leku berezia dute, liburuaren lehen zatian batez ere, 60-70-80ko hamarkadetakoa giroa eta errealitatea hobeto ulertzen laguntzeko.

Musika taldeena ez ezik, unean unean Oñatin antolatu izan diren kontzertuen berri ere ematen da liburuan, sarreren prezio eta guzti. Aipamen berezia egiten zaio, adibidez, 1983an Oñati hankaz gora jarri zuen punk

jaialdiari (R.I.P., *Cicatriz en la Matriz*, *Las Vulpess...*); herrian bizi izan zen giroaren (istiluak, labankadak, psikosia...) berri luze eta zabal ematen da, garaiko kronika eta protagonisten testigantzekin. Urte berean *Barricada*, *Hertzainak* eta *La Polla Records* taldeek eskainitako kontzertuak, eta 1998an Chiapasera traktore bat bidaltzeko asmoz egin zenak ere (*Latzen* eta *Doctor Deseo*) aipamen berezia dute, beste askorekin batera.

Musikaz haratagoko ekimenek ere badute lekua liburuan (fanzineak —*El Acto*, *KRO*, *BurdinKAKO*—, irrati libreak —*Belarri*, *Jo Ta Ke*—, gaztetxeak, gaztelekua, txosna gu-neak...), herriko kultura eta musika giroaren garapenean eragin duten zehar-faktoreak baitira. Hainbat anekdota eta bitxikeria ere irakur daitezke, hala nola, Ruper Ordorikaren debut egunekoak, edo *Hertzainak* taldeak 'Gari'ren fitxaketa Oñatin egin zuenekoak, beste askoren artean.

Liburu interesgarria, benetan. Sintesi lana egin behar izan du Biainek, liburuan jaso ahal izan duena baino askoz material gehiago zuelako, baina, hala ere, rock musikak Oñatin utzi duen arrastoaren erradiografia zehatza egiten du. Herriko liburu dendetan, Txokolateixan eta kultur etxean eskura daiteke liburuak 10€-tan.

'Suak pizten direnean' poesia liburuaren aurkezpen errezitaldia

Mikel Soto, egilearekin batera, Irati Jimenez eta Harkaitz Cano ariko dira



Urtetan editore lanean aritu ostean, bere lehen poesia liburuak, *Suak pizten direnean* (Elkar), plazaratu du Mikel Sotok (Iruñea, 1978) eta Antixena gaztetxean aurkeztuko du **urtarrilaren 8an** (20:00), Irati Jimenez eta Harkaitz Cano idazleak lagun dituela.

Poemario ausart, zintzo eta emankorra da Sotorena, bere bizialdiko hainbat mugargi jorratzen dituena: kontzientzia politikoa piztea, gazte mugimenduan engaiatzea, poliziaren kontrako borroka, gezurretan oinarritutako atxiloteta, tortura eta epaiketa... Aitortza pertsonala bezain jenerazionala, politikoa bezain literarioa.

Ekitaldirako sarrera doan izango da, baina aforoa mugatuta egongo da eta COVIDak eskatzen dituen segurtasun neurriekin egingo da.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



MUSIKA

URTARRILAK 10 / 17:00 eta 19:00

'GOAZEN 7.0' KONTZERTUA



Haurrentzako antzezlan, Txalo antzerki taldearen eskutik (3,5€). [Santa Anan](#).

URTARRILAK 21 / 19:00

ZETAK



Pello Reparaz buru duen pop elektronikoko taldearen kontzertua. Sarrerak urtarrilaren 9an jarriko dira salgai [Gaztelekuan](#).

POESIA ERREZITALDIA

URTARRILAK 8 / 20:00


'SUAK PIZTEN DIRENEAN'

Mikel Sotoren poesia liburuaren aurkezpen errezitaldia, Irati Jimenez eta Harkaitz Cano idazleek parte hartuko dute egilearekin batera. [Antixena gaztetxean](#).

ANTZERKIA

URTARRILAK 23 / 17:00

BOTADUN KATUA



Glu Glu taldearen eskutik, 10 urte arteko haurrei zuzendutako ikuskizuna. Charles Perraultek jasotako ipuin klasikoaren moldaketa. Kantu eta dantzaz betetako antzezlan komikoa (3,5€). [Santa Anan](#).

HITZALDI-SOLASALDIAK

URTARRILAK 12 / 19:00

BURUGABETZE BILAKAERA
BIDASOAREN BI ALDEETAN

Asisko Urmenetaren hitzaldia. Nabarraldeko antolatuta. [Kultur etxeko zineman](#).

URTARRILAK 13 / 18:30

INFOXIKAZIOA: EZAGUTZA ETA
IRITZI PUBLIKOAREN ERAIKUNTZA
INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

Hizlariak: Ekai Txapartegi (EHUko filosofia irakaslea), Iraia Oiarzabal (Gara-ko

kazetaria) eta Ugo Mayor (ikerlaria). EH Bilduk antolatuta. [Santa Ana aretoan](#).

URTARRILAK 20 / 19:00

KONSTITUZIO NAFARRA: FORUAK -
ZUZENBIDE PIRINIARRA

Roldan Jimenoren hitzaldia, Nabarraldeko antolatuta. [Kultur etxeko zineman](#).

URTARRILAK 26 / 19:00

HITZEN AHAIREA - ZERI KANTATZEN
DIOGUN

Gotzon Barandiaran eta Rafa Ruedaren hitzaldi musikatua. Nabarraldeko antolatuta. [Kultur etxeko zineman](#).

URTARRILAK 27 / 18:00

WIKIEMAKUMEAK

Mentxu Ramilo, Marisa Barrena eta Sonia Francisco. Aurkezpena eta solasaldia. [Kultur etxeko zineman](#).

ERAKUSKETAK

URTARRILAK 11 - 25 / 18:00-20:00

KONKISTAREN MUGARRIAK

Euskaldunon historiako pasarte esanguratsuenak biltzen dituen erakusketa. Urtarrilaren 11n eta 25ean, Beñi Agirre historialariak gidatutako bisita egingo da (18:30). Nabarraldeko antolatuta. [Kultur etxeko erakusketa gelan](#).

TERTULIXAK

URTARRILEAN ZEHAR

IRAKURLE ETA IDAZLE TALDEAK

Udal liburutegiko idazketa lantegiko bi taldeek **urtarrilaren 11n** izango dituzte hil honetako saioak. Bestalde, Psikologiako irakurle taldea **hilaren 12an** bilduko da *Estoy mucho mejor* (David Foekinos) liburua aztertzeko. Euskarazko Tertulixan taldeak **hilaren 19an** bilduko da, eta gaztelarazkoa **otsailaren 2an**.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK




MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40


IPUIN KONTAKETA

**IPUIN
MUSIKATUAK
ANDURIÑA ETA
TXEFO**

URTARRILAK 28



Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, 6 urteko gorako hurrei zuzendutako saioa antolatu du udal liburutegiak. Anduriña eta Txefo etorriko zai-zkigu, musikaz betetako maletekin, eta emozioen munduan bidaiatzeko gonbita egingo digute beraien istorioen bidez. "Baziren behin elefantea, sagua, ardia, sorgina, puzkerra, erlea, marigorringoa, kometa... eta denek dantza egin nahi zuten. Haizearen txorien eta baxu elektrikoaren laguntzarekin festa giroan zenbait ipuin asmatu zituzten. Entzun nahi?" Bi saio egingo dira, 18:00 eta 18:45etan. Gonbidapenak hilaren 18tik aurrera. [Udal liburutegian.](#)



Hileko gomendioa

Neguko Biblioporrak gida kaleratu du udal liburutegiak adinka sailkatutako 39 liburu, 4 CD eta 6 DVD gomendagarriekin. Etxe guztietara banatu da gida, baina udal liburutegian ere eskuragai dago gida, eta baita udalaren webgunean ere (www.oñati.eus) formatu digitalean.

FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ **943 78 21 16**
Urtarrilak 11, 12, 20, 21, 29, 30 eta 31. Otsailak 8 eta 9.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ **943 78 01 22**
Urtarrilak 4, 5, 6, 13, 14, 22, 23 eta 24. Otsailak 1 eta 2.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ **943 78 05 58**
Urtarrilak 7, 15, 16, 17, 25 eta 26. Otsailak 3 eta 4.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ **943 78 11 28**
Urtarrilak 8, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28. Otsailak 5, 6 eta 7.

ZINEA



Urtarrilak 7 - 10

ZINE KLUBA:

Volver a empezar

NAGUSIAK:

Beginning

Urrezko maskorra

Donostiako zinemaldian

GAZTETXOAK:

Mi amigo pony



Urtarrilak 14 - 17

ZINE KLUBA:

Cómo sobrevivir en un mundo material

NAGUSIAK:

El inconveniente

GAZTETXOAK:

En guerra con mi abuelo



ORDUTEGI BERRIA

Zine-kluba: Osteguna (19:00)

Nagusiak: Ostirala, larunbata eta igandea (19:00). Astelehena (19:00 / ikuslearen eguna)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (16:30)

Urtarrilak 21 - 24

ZINE KLUBA:

El arte de volver

NAGUSIAK:

Nieva en Benidorm

GAZTETXOAK:

Elfkns (Euskaraz)



Urtarrilak 28 - Ots. 1

ZINE KLUBA:

Martin Eden

NAGUSIAK:

Manual de buena esposa

GAZTETXOAK:

Los Croods: una nueva era



MERKATU TXIKIA

KLASE PARTIKULARRAK

Lehen Hezkuntzako eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak (logopeda), partikularrak ematen ditu: 618310126

GARAJEA EROSI

Honako kaleetan edo inguruan garajea erosiko nuke: Portu, Lope de Agirre, Bakardadeko Ama, Mendiko Kale eta San Juan kale. Telefonoa: 688 304 704.

ETXEBIZITZA ALOKAGA

Jacan, eski denboraldirako. Herri erdialdean dago. 943781860 / 659291684.

ODOL ATERALDIA

URTARRILAK 8 / 16:30-20:00

Enpresagintza fakultatean



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (5)

GAZTAIÑERRE-JANA

Amaia: Sasue honetan gustura bai gustura egingo ñekek, ba, gaztaiñerre-jan bat sagardauaz bustitta! Zer pentsaitten xak?

Jon: Nik etxakonat ningunorik! Baiña pentsau don nun eta zeintzuk egingo dogun?

A: Danera, asko jota, sei izan biharko gaittuk, badakik... eta lekuagatik ez larrittu, geure etxian jirauko gaittuk!

J: Primeran, baiña kontuan hartu don zuen etxian ezin dogula gaztaiñak erre, sua egiteko eztaguelako leku egogirik?

A: Hori konponduta xagok: gaztaiñok Aintzaineren baserriaren erreko ditxugu eta geure etxian jan.

J: Bapo! Eta zer gaztaiña erreko xonagu, hemengua bertakua, basuan batutakua ala dendan erositakua? Aldia xagon, e!

A: Aukeran, bertakua, baiña horrek lan gehixago emungo xoskuk, eztok pentsaitten?

J: Denporaz ibilli ezkerro, dana egin lleken: datorren zapatuan kuadrillakuak juntau eta baso buelta bat emunaz gaztaiñak batuko ditxonagu eta hurrengo zapatuan erre eta jan!

A: Ederki! Nik bialduko xostiat washapa lagunai zapatuan geldiketako, heuk esan nora fan bihar dogun.

J: Kortabarri aldia gaztaiña-lekua don eta alderdi horretara fango gaittun; gaiñera, perretxiko batzuk topaitten baditxonagu, horreik be platererako!

A: Horixe, horixe! Menu ona dok: perretxiko-tortillia eta, ondoren, bihar beste gaztaiñerre sagardauaz lagunduta.

**Gaztaiñak erre artian, gaztaiñak erre artian txipli, txapla, pum!
Gabon gaba pozik igaro degigun!**

Hiztegixa:

Unalian fatia: Jabiak gaztaiñak batu ondoren, libre egoten zan harek batu bariko gaztaiña-aliak batzeia; horixe zan unalian fatia.

Gaztaiña klasiak: ahuntz-gaztaiña edo Antzuela gaztaiña, errete jateko ona; bergaramendua; iñurria; sapardua ...

Gaztaiñak koskiu: erre aurretik hagiñakin koskatxua kentzeia gaztaiñari, tirorik jo ez eta hobeto erreteko.

Danboliñian gaztaiñak erre. Lapikuan, gaztaiñak egosi.



>> BILLATU BERBA HONEIN SINONIMUAK:

- | | |
|--------------------------|----------------------------|
| 1. Gibel-haundixa | A. Kakatsua, erdeinagarria |
| 2. Kankaillua | B. Mamia |
| 3. Gogaikarrixa | C. Sarraila, kisketa |
| 4. Xelebria | D. Gerrikoa |
| 5. Morraillua/morroillua | E. Potro-handia |
| 6. Petriña | F. Handikotea |
| 7. Pasabidia | G. Igogailua |
| 8. Igotekua | H. Bitxia, ez ohikoa |
| 9. Poltsikua, poltsikara | I. Pasilloa, korridorea |
| 10. Gatzatua | J. Sakela, patrika |

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Mendizale oñatiarrak

Mendizarekin aspalditik euki dau lotura estua Oñatik. Izan be, harrigarria da gure jaixoterrixaren muga zabalaren barruan eta inguruetan **zenbat mendi eta muiño** sartzen dan, **tontor, malda, hegi, zihar, harro, amildegi, haitzarte, poto** eta gaiñerako gorabehera eta zirkinzuluekin; euren **baso, larra, korta, eskorta, eillor** eta **txabolekin; hariztuixak, pagaduixak, gaztaiñaduixak** ziran jaun eta jabe sasue batian, **artia, urkixa, korostixa, hagiña** askoz bakanago; **piñudixak** nagusittu ziran hemengo basuetan XX. gizaldixan, baiña ez zihero. Leku-izenetan be erruz agerketan xaku mendixaren eta enparauen arrastua. Hona, beste askoren artian, banaka batzuk: **Gorgomendi, Aurrekomendi, Arabako mendixak; Korosomuiño, Areizmuiño (Amiño), Kamaramuiño (Kamamuño); Eltzikorta, Kortabarri, Kortakogain; Aloñaziarra, Aldaiziarra, Larraziar; Danbolin-poto, Bakuepoto, Olapoto;** eta abar...

Gure mendi eta basuetan **artzaiñak, unaiñak, ikazkiñak** eta **basomutillak jardun euen**, batez be, menderik mende euren lanbidietan: artzaiñak ardixak zainketan, unaiñak ganaduak, ikazkiñak txondorrek, eta basomutillak hainbat zeregiñetarako zura eta egurra ataraten. Baiña XX. gizaldixa aurrera fan ahala, pittinka-pittinka **kaletarrak be erakutsi euen mendirako joeria**: ez lanerako, gozamenerako baiño. Horren eragiñez, **Aloña, Urbixa, Aizkorri, Aitzgain, Degurixa edota Lizargarate gero eta hurrago** egozen kalekumientzako be. Hasieran aberaskilluak eta señorituak, asti gehixen eukaiñak, izan ziran horretan saiatuenak. Laister, baiña, herritar korrentiaguak be ekin otsain mendira fatiari. **Urbixako ermittia eta ondoren fondia** 1920ko hamarkadan jaso ziranian, **pultzakada politta** emun xakon hemengo mendizaletasunari.

Gerraostian **gero eta oñatiar gehixagok** hartu eben **mendirata fateko ohitturia**: Duru, Urbixa, Degurixa nahiz Aurrekomendi aldera. **Txantxiku Txoko** alkartiak lehenengo eta **Aloña Mendik** geruago lan haundixa egin euen arlo horretan, ibillaldixak eta beste ekintza batzuk antolatuz. Goiko Bentako ostatu aurrian ikusten dogun **kuadrillatxo honek be urte askuan eutsi otsan mendirako afiziñuari**. Bat izan ezik, txantxikuarrak dira danak eta oso ezagunak Oñatin. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue jarritta dagozen gizakumiok: **Regino Biain; Patxi Mendiola (Bidaurreta); Felix Igartua; Gregorio Arratibel; Joakin Irizar;** eta **Dionisio Mugartza**. Zutik, horma kontran, **Mari** eta **Juanita Maiztegi**, Goiko Bentako ahizpak.

Argazkixak hirurogei urte pasatxo eukiko dittu.
Guri Goiko Bentako familixiaren bidez heldu xaku. Milla esker!

2021ean ere Eskola Kirolari arnasa ematen

Zorionak eta Urte Berri On



Oñatiko
Eskola Kirola



LANA



ULMA

FAGOR



LABORAL
kutxa

Natraoñati



sustrai
ERUPLA-BERRA